



Erretreten erreforma Herriarren pultsua Sarkozyren politikari

Javier Arzuaga

Che Guevararen
kondenatuak
hormara lagundu
zituen apaiza

Euskal preso politikoak

Parot eta
Troitiño
familien
lekukotza

Antzerkia

Profesional eta
amateur
bereizketak
zentzua galdu du

Umeentzako barnetegiak

Astebetez jolas
giroan euskaraz
bizitzeko aukera

Antxeta Irratia

Hamarkada bat
lan sozialean



Bazen behin...

Mahai-jolasa

4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak



Galdera-erantzunak
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com

Ludi**toys**

www.luditoys.com

**"Egin jolas giza gorputzari buruz
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"**



Azaleko argazkia:

GAIZKA IROZ

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera ➤



• NON ZER •

2010eko azaroaren 7a, 2.251. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Nora Arbelbide:** «Dirurik ez da prentsarentzat, bai komunikazio arduradunentzat». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Euskal preso politikoak.** Troitiño eta Parot: bi familien erretratuak. MIKEL ASURMENDI / 5

Pertsonaia

- **Javier Arzuaga:** «Che justizia-egilea ezagutu nuen, edonor hiltzeko gauza zena». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **Antxeta Irratia.** Akuilu soziala Bidasoan. MIKEL GARCIA / 15

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Munduaren ertzak. ANA URKIZA / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Karrusel bizitzak.** GORKA MORENO MARQUEZ / 20
- **Txandan** Xake Mate. JUAN RAMON MAKUSO / 20
- **Askatasuna datorrela!** IÑAKI ODRIÓZOLA / 21
- **Hiruko txikian** Abiatu JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Urriko egun ilun bati jarriak. MIREN ARTETXE / 22

Erdiko kaiera

- **Antzerkia.** Profamateurrak agertokira. OIER GUILLAN / 23
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 26
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 27
- **Ezpalak** JON TORNER / 28
- **Abarrak** ESTITXU EIZAGIRRE / 29
- **Ihesi Irati (Nafarroa).** Kolore eztanda. GORKA AZKARATE / 30
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Pentsioen erreforma.** Gazteak eta helduak haserrean bat eginda. URKO APAOLAZA / 39
- **Euskal Girotze Barnetegiak.** Ikasleen barrunbeak arakatzen. SAIOA LABAKA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Erretretak: sua langile eskubideen azken barrikadan. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Batzarre.** KIKE DIAZ DE ULTZURRUN SAGALÁ / 50



“Dirurik ez da prentsarentzat, bai komunikazio arduradunentzat”

Nora Arbelbide | Beti komunikatzen

Telefonoaren antza duela diote.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Gaizka Iroz

Papagai omen kazetaria, Nora.

Baina papagaia liluragarria izan daiteke. Edo-zein gisaz, deus ez dela asmatzen erraiten da, dena jadanik idatzia dela, dena jadanik pentsatua, ez?

Gogorra zara ofizioarekin.

Eta ofizioa oraindik gogorragoa enekin. 30 urte ditut, baina jadanik bizkarra hasia zait konkortzen izugarri, erdi itsu, kolesterola ez urrun. Bihotzeko bat laster baldin badut ez nintzateke harrituko.

Lasai, Sarkozy salbatuko zaitu!

Erretreta erreformarekin uste dut lana 73 urteetara arte segitu beharko dudala, edo menturaz, 76etara arte. Kalkuluak ongi egin beharko ditut.

Kontent beharko zenuke, informazioaren gizartean bizi gara.

Ene ustez, komunikazioaren gizartean gara bizi. Dirurik ez da prentsarentzat, baina bai komunikazio arduradunentzat. Eta komunikazioa giltzapetua dagoen lekuan, informazioak oraindik zailagoa du lana.

Herritarrek merezi dituzten kazetariak dituztela, alegia.

Frantsesez erranen dizut: *Parce que je le vaut bien...* (Imajinatu Claudia Schiffer edo beste dena delako bat horren erraiten). Orain bai, liluragarriago, ezta?

Askoz ere. Baina ez dakit zein den irakaspena...

Liluraren munduak izugarriko erakargarritasun eta indarra duela.

Itxurak egitean dago gakoa, beraz!

Ez luke hala izan behar! Egunero horren kontra borrokatu behar da: pentsatzen hasi, hazka egin doi bat eta ohartzen zara dena ez doala ontsa. Horretarako denbora behar, haatik. Eta gutitan dugu.

Denbora sosa baita.

Eta sosa boterea eta boterea sosa eta sosa denbora eta denbora askatasuna... Boterea askatasuna ote? Ala askatasuna botere...

Nola ikusten dira gauza hauek Frantz, barka, Ipar Euskal Herriatik?

Espainia iparraldeak gero eta eite handiagoa du Frantzia hegoaldearekin. Abilezia handiarekin ari dira Akitania Euskadiri lotzen, guztiek normaltasuna helburu.

Kontxo, sakon mintzatzen ere badaki kazetariak.

Eta bizkitartean, gu erdi horretan, erdi estralurtar. Hegoaldekoentzat frantses, iparraldekoentzat espainol.

Hau mundu arrano hau!

Pentsa! Berriki, Donibane Garaziko Turismo Bulegora deitu dut, euskaraz mintzatu naiz eta neskak espainolez erantzun dit. ■

Euskal preso politikoak

Troitiño eta Parot: bi familien erretratuak

Garai batean, zain zituzten aita eta ama. Gaur egun, presoak aita eta ama dira, baita aitona-amona ere. 700 inguru dira. Hauetako batzuen seme-alabak espetxean sortu dira. Asko oso gaixo daude. Badira hogeitau urte baino gehiago kartzelan daramatenak. Horietako askok, legea eskuetan, kalean izan beharko luke. Familia horien guztien adibide bi ekarri ditugu: Troitiño eta Parot.

MIKEL ASURMENDI

DANI BLANCO

MATTIN TROITIÑO 1984ko irailaren 9an jaio zen, Donostian. Aita, Txomin Troitiño, osaba Antton eta Jon anaia espetxean ditu. 1987ko urtarrilean atxilotu zuten osaba, eta irailean aita. Anaia berriz, duela sei urte: “1987ko irailaren 3an atxilotu zuten aita, nik hiru urte egiteko zorian... Ez dut gogoratzen, noski”. Amaren familia donostiarra da. Aitarekin aldetiko amona Palentziakoa (Espainia): “Tariago de Cerratokoa, herri txikia...”. Aitona, galiziarra, Itsas Armadako militarra izan zen. Francoren alde borrokatua. Frankista. Bederatzi seme-alaba izan zituzten: “ETAkoak izanik ere, aitona aitari eta osabari errespetua gorde zien hil zen arte. Nire amona seme-alabak aske ikusiko dituen esperantza-rekin bizi da”.

Mattinen egoera bizi duen inork, azaltzen gogorak diren gertaerak ezagutu ditu: “Nik kartzelaren irudia txikitatik bizi dut, gorde dudana irudia da. Prozesu ‘normala’ izan da edo hala bizi dut. Heziketaren barnean neureganatu dut kartzela, asimilazio prozesu bezala: kartzelak, presoak, bisitak, funtzionarioen jarrerak... Hori guztia txikitatik bizitzea ‘egokitu’ zait. Gaur egunera etorrita, kartzelatik kanpo kartzela bizi dudana pertsona naiz”.

Espetxean dagoen pertsonarekin harremanak bereziak imajinatu ohi ditzakegu. Hona Mattinen kasua: “Pertsona bat ia betidanik preso ezagutzea latza da, eta zure aita bada, pentsa. Kartzela mundu berezia da, mugatua, traba izugarria da. Aitarekiko harremanak ez nituzke beste aita-semeen arteko harremanekin konparatuko, desberdinak dira. Nik aita beti maite izan dut horrela. Urrun izanik ere,



Mattin Troitiñok Etxerat elkartean dihardu. Txomin, Antton eta Jon Troitiño presoek senidea da.

harreman ona landu dugu”. A Coruña dago aita, Curtisko espetxean. 55 urte ditu eta 23 daramatza barruan... “23 urte kartzelan pasatzea ez da samurra, ez berarentzat eta ez ondoan garenontzat”.

Aitak eta osabak elkarren antza dutela dio Mattinek, “baina gauzei aurre egiteko moduan oso ezberdinak dira. Osaba atxilotu zutenean inor ez zen harritu, aita atxilotzea aldiz inork ez zuen espero, inork ez. Lehen harremanetan aita osaba baino serioagoa da, osaba irekiagoa”. Huelva In dago osaba.

Aita eta osaba baino gogorragoa egin zitzaion anaia kartzelan ikustea: “26 urte ditut, eta hogeitau urte nituenean espetxeratu zuten. Anaia ere ETA erakundean sartuko ote zen aski kontziente nintzen, baina urte asko eman nuen bizitzen berarekin. Anaia ‘lapurtu zidaten’. Atxilotu zutenean lau urte zeraman ihes. Ez da erraza onartzea, ez duzu nahi zuri tokatzea”. Aitaren —eta osabaren— bidea hartu zuen anaiak ere: “Kartzela lehendik ‘ezagutu’ duzunez gero, are gogorragoa da onartzea. Anaiarenak errealitatearen alde are gordina-goa erakutsi zidan”. Jon anaia duela hiru hilabete estraditatu zuten Frantziatik. Fresnesen egon zen, Marseillako espetxean ondoren, eta gero Toulonen. 31 urte ditu eta Foncalant-en dago egun, Alacanten.

Bidaia eta bisitak

Espetxea eta estuasuna hitz kidekoak dira Mattinen hiztegiak: “Kartzela estutzen zaituen espazioa da. Ateak, funtzionariak, itxiturak, kristalak, usaina... Ezaugarri asko dauka espetxeak, estuasunak hoztasuna dakar. Nahiz eta batzuetan, kontrastean, berotasuna ere sentitzen duzun, presoan senidearengan aurkitzen duzun berotasuna”.

Aita izaera sendokoa dela dio, “baina hogeitau urte luze kartzelan betetzen duzunean, beste askok bezala, zerbait mugitzen zaizu barruan. Egunerokotasunean pilatzen den zamaz gain, hogeitau urteko koska handia da. Izateko moduarengatik denbora erraz betetzen du aitak. Burua ondo dauka. Margolaria da, kirola egiten du, kanpoko jendearekin harreman oparoa landu du eskutitzen bidez. Kanpoko errealitatearen jabe da, eta horrek balio dio barruko egoera gainditzeko”.

Aitak eta osabak, laguntzen dien jende ugari daukate inguruan. Bisita asko eta babes sozial azkarra dute lagunengandik: “Nik beste egoerak ezagutzen ditut, inguru sozial murriztagoa duten presoena. Den-dena familiaren bizkar geratzen diren kasuak. Alde

horretatik ni ez naiz kexatzen. Noski, hiru senide izaki, gastu ekonomikoa izugarria da”.

Gastu ekonomikoa, denbora eta errepi-deetako arriskua: “Ez dut inoiz gogorik izan egindako kilometro kopurua ezagutzeko. Igoal, beste pertsona bat banintz bai, baina ni horrekin jaio nintzen, eta ez dut ‘berezitasun’ bezala bizi. Kilometro asko egin dut aita, osaba eta anaia ikusteko, asko”. Curtis-era autoz joaten dira, ez daukate autobusez joate-rik, bertan diren preso kopurua txikia baita. Espetxearen helburua zailtasunak jartzea da, sakabanaketa dela edo beste dela eta. Presoak

“Pertsona bat ia betidanik preso ezagutzea latza da, eta zure aita bada, pentsa. Aitarekiko harremanak ez nituzke beste aita-semeen arteko harremanekin konparatuko”

MATTIN TROITIÑO

ikusteko bidaia milaka bilakatu dira. Granadara bidaia egiten zuen garaia dauka gogoan Mattinek, autobusean zegoen giroa. Jende eta errealitate ezberdinak ezagutu zituen: “Nik badut fijazio bat: amak eta seme-alabak elkarrekin ikustea. Irudia buruan iltzatua daukat. Ama haien azalean nire ama jar-tzen dut, eta umea neu naiz. Txikitako nire egoera ikustea

gogorra egiten zait, bizitakoa hogeitau urteren ondoren errepikatzea...”.

Kanariar Uharteetako Salto del Negro espetxeko narraskeria ere badarama buruan. Hirugarren Munduko espetxea. Humanitate ezaren isla. Txomin Troitiño han egon zen 1989-90 urteetan, sakabanaketa garaian: “Egoera oso gogorra zen eta gu urtean behin joaten ginen. Hegazkinez, bi hegalditan: Bilbotik Madrilera eta handik Uharteetara. Bi egun pasa eta buelta. Diru eta denbora xahu-tze ikaragarria zen”.

Duela hiru urte, berriz, Granadara aita bisitan joan ziren eta min ikaragarria egin zieten berari, Oier anaia txikiari eta amari: “Urtea betetzen zuen Oierrek. Anaia bere aitarekin aurrez aurrekoan egotea zen oparia [Oierrek osaba bezala identifikatua du Matti-nen aita. Ama bera dute, baina beste aita dauka]: “Familia Liburuarekin sartu behar zen Oier, karnetik ez baitzeukan. Funtziona-riek ez zioten utzi pasatzen, ez zuten inolako malgutasunik izan. Ez zen lehen aldia. Datu basean zegoen, bazeukaten identifikatzea. Argazkia ere bazuten. Robotek bezala jokatu zuten, ez zioten sartzen utzi. Robotak jarriko balituzte berdin”.

Ettxerat-en ari da

Mattinek Ettxerat elkartearen dihardu lanean: “Aitak eman zidan gomendio bakarra ‘ardura ondo ezagutzea eta betetzea’ izan zen. Elkar-tean eta senideengan sufrimendu handia dagoelako. Harrezkero ez dit ezer gehiago esan”.

“Badakizu –segitzen du Mattinek– momentu gogorretan galdetzen digute nola gauden, eta askotan ‘ondo’ esaten baino ez dakigu. Horretan akatsa izaten dugu. Ni kontziente naiz aita preso dagoela, ez duela askatasunik, eskubide asko urratua duela, egunerokoa zama bihurtuz doala eta berak badaki, zoritxarrez, nik txikitatik bizi izan dudan errealitatea dela. Horrek ez du esan nahi zama ez denik, elkar ulertzea dago, enpatia. Bisitetan hitz gutxi egiten dugu batzuetan, komentario txikiak dira, ez dugu halako diskurtso luzerik izaten. Une gogorretan izaten diren detaileak laguntzen digute aurrera egiten. Elkar laguntzen dugu”.

Ursoa, Jon eta Unai Parot

Ursoa Parot Aljeriako Sidi-bel-Abbes probintzian jaio zen, 55 urte ditu. Jon Parot Aljerian jaio zen, 58 urte ditu. Unai Parot aldiz, Aljer hiriburuan, eta 52 urte ditu. Anaia-arrebak dira. Bi anaiak preso daude: “Unai Al Qaeda-ekin lotu nahi izan dute zenbait alditan, parotarrak arabiarrek garela erranez”. Ursoaren aita zuberotarra zen. Ama, nafar jatorrikoa: “Gurasoak Aljereko Euskal Etxean eza gutu ziren, hiriburuan. Gu jaio ginen garaian Aljeria, Maroko edota Tunisiako Euskal Etxeak oso ezagunak ziren munduan. Parot

Ursoa Parot, Jon eta Unai Parot euskal presoaren arreba.

familia, aitaren aldetik Muskildikoa da. Parotia etxea Garindain-en dago. Ene amatxi Ûhalt zen, Altzürükükoa”.

Aita, Anbrox Parot Ûhalt, 1917an sortu zen, hamabi anaia-arrahen artean gazteena izaki. Familia Bordelera aldatu zen halabeharrez. Bere anaia-arrebek ez bezala euskara galdu zuen. Bordeleko josulagunen etxean heziketa jasoa ukan zuen halere: “Besteek ez zuten ikasketarik ukan, aita bai. Aitak euskara galdu zuen, baina euskal kontzientzia erne atxiki zuen”.

Anbrox Parotek Bigarren Mundu Gerran parte hartu zuen: “Alemanek preso hartu zuten bi aldiz eta bietan ihes egin zuen. Beste batzuek alemaniarren menpe bizitzea onartzen zuten, haien etxaldea okupatzea. Aita erresistentzian sartu zen. Gerra ondoren Aljeriara destinatu zuten maisu bezala. Frantziako Eskola Publikoko errienta izan zen” diosku Ursoak.

Aljeria kolonizatuaren garaia zen. Frantziar herritarrak bortxaz eramaten zituzten bertara. Ursoaren ama, Antonia, jatorri nafarreko Lorca herri andaluziarretik joan zen Aljeriara. Postetxean lan egin zuen. Aitak eta amak han ezagutu zuten elkar: “Aljerian sortu ginen, baina aitak Jon, Unai eta Ursoa izenak eman zizkigun. Orduan ez zizkioten onartu, debekatuta baitzegoen”.





Goian Txomin
Troitiño, Curtisen
(A Coruña) dago.
Ezkerrean
Unai Parot,
El Puerto de
Santamarian
(Cadiz) dago.

Amaren familia Espainiako Gerra Zibila garaian iritsi zen Aljeriara. Ursoaren aitona-amonak frankismoaren aurreneko garai katolikoan jaio ziren. Amak ere, familiako gazteena izan zenez, ikasketak egin ahal izan zituen. Errefuxiatuei sostengua eman zieten: “Gure aitona-amona katolikoak ziren, baina beren etxeko atea beti irekita zegoen errefuxiatu errepublikar, anarkista edo komunistentzat. Ez ziren katoliko erreakzionarioak. Laborari jatorriko langile xumeak ziren. Guk txikitatik errefuxiatuen mundua modu naturalez bizi izan dugu. Amaren aldetik kultura komunala jaso genuen, aitarena baino komunitarioagoa. Aitaren aldetiko kultura, zuberotarra, indibidualistagoa zen. Zuberotarra izanagatik, zentzu horretan, aita ezberdina zen”.

Aljeriako Independentzia Gerra

Aljeriako Independentzia Gerrak eztanda egin zuenean Parot familia han bizi zen. 1962an, *Pieds-Noirs* delakoak itzuli ziren, Parot familia urtebete lehenago: “Aljeriarrei bozkatzeko eskubidea ukatu zietela salatu zuen publikoki ene aitak. Hara, mehatxatu zuten

demokrata zelako. Aitaren eta amaren jarrerak oso nabarmenak ziren gizarte hartan. Gure familia ez zen kolonizatzailea. Bekaizkeriak, salaketak eta mehatxatuak behartuta aterarazi zituzten aita eta ama handik”.

Orhiko txoriak Orhira nahi

“Altzürüküra itzuli eta irakasle jardun nahi zuen aitak. Bere bokazioa zen. Euskal Herri-
ra itzuli nahi zuen, baina ez zioten errienta plaza bermatzen. Sorterrian ez zegoen plaza-rik. Nerbio-depresio izugarria jasan zuen”. Tolosan (Okzitania) bizi izan ziren parotarrak: “Oporretan Zuberoara jiten ginen. Frankismoaren azken garaia zen. Aitak asko irakurtzen zuen eta errepresioaren berriak ematen zituen familian. Unaik, hamalau urte-ekin, idazlan bat egin zuen eskolan eta tortu-
raren gaia landu zuela oroitzen dut”.

1975ean Parot familia Tolosatik Baionara aldatu zen. Hemengo irakasleek Parot errien-
ta *Pied-Noir* bat bezala hartu zuten: “Parot familia atzeritarrak sentiarazi gintuzten, lana lapurtzen omen genien bertakoei. Diskrimi-
natuak izan ginen. Alta, aita Euskal Herriaz mintzo zen. Ez zen politikaz mintzo ere, herriaz eta kulturaz baizik”.

Hogei urte zituela, Batallon Vasco-Españolek Jon anaia zauritu zuela gogoan dauka Urso-
ak: “Etxabe tabernan; Baionako Pannecau karrikan”. Aita erretretan zegoen garaia ere gogoratzen du: “Gurasoak errefuxiatuen giro-
an mugitzen ziren. Aitak errefuxiatuen seme-
ei frantses klaseak dohainik ematen zizkien. Aita 2002an hil zen. Aljeriako ikasleak etorri ziren bere hileta elizkizunetara, oso gizon maitatua izan zen”, dio Ursoak. Ama bizi du.

Parotarrak laidotuak

Unai eta Jon atxilotu zituztenean haiei buruz-
ko irudi lazgarriak zabaldu zituzten hedabi-
deek, laborria hedatu zuten. Parisen bizi zen
famiarengandik jaso zuten inpresioa azaldu
digu Ursoak: “Deitu ziguten esanez hiltzeko
pena jarriko zietela bie Frantzian. Gurasoek
pentsatzen zuten mundu abertzalean ari zire-
la, baina ez zuten hain sartuta zeudenik uste.
Gurasoak ez ziren jabetzen anaia-arreben
engaiamenduaz. Zabaldut zuten irudia ez
zuten hedabideek ematen zituzten irudiekin
lotzen ahal. Kontrastea ikaragarria izan zen”.

Aitak ezin izan zuen Unai ikusi lehen zazpi
urteetan, debekatu egin zioten: “Unai bost
egunez eta bost gauez torturatu zuten. Ondo-
ren, Herrera de la Manchan (Espainia) zegoe-
la, poliziak xantaia egin nahi izan zioten”. El
Puerto de Santa Maria III. espetxean dago
egun. Jon berriz Parisko hainbat espetxetan
izan ondoren, Tolosara eraman zuten: “Amak

–83 urte ditu– espetxeko lehen urteetan hiru bidaia egiten zituen hilabetero: Unairengana bat eta bi Jonengana. Unai torturen ondorioz laguntza handia behar izan zuen. Oso egoera gogorra bizi zuten gurasoek”.

Parot doktrina

Unairi ez zaio gustatu *Parot doktrina* izendape-naren bidez bera egunero prentsan egotea. Auzitegi Goreneko *doktrina* da. *Parot doktrina* gabe ere, nahiko ezaguna zen Unai: “Unai ez du gustuko preso bati pena luzatzen dioten bakoitzean bere abizena entzutea, gogorra egiten zaio. Eni berriz, Unai ahanzte-a egingo litzaidake gogorragoa”.

Ursoa alarguna da eta ez du seme-alabarik. 2.400 km. egin izan ditu hilabete oro, batez beste, anaiak bisitatzeko. Unairi, berezko erregimena zuenez, ez zizkieten bisitak onartzen beste preso-en egun berean, eta familia aparte ibili zen beti. Denbora luzez ezin izan zuten Etxerat-eko autobusa hartu. Eta hainbatetan, amarekin edo ilobekin joan eta... “Unai bisitatzera joan, Madrilera iritsi eta Guardia Zibilak furgonetan eramaten zuela ikusi dugu”. Espainiako espetxeak jasangaitzak dira, ankerrak eta inhumanoak.

Haizea eta Oihana alabak ditu Unai, 25 eta 22 urtekoak. Beste alaba bat dauka bigarren emaztearekin: Izar, 12 urtekoa. Aitona ere bada. Oihanak Kima izeneko alaba du. Jonen alaba, berriz, Iñitza da: “Atxilotu zituztenetik, funtsean ni izan naiz Unairen alaben ama”. Lehen alabak zazpi urte zituela ikusi zuen lehen aldiz aita barroteen eta kristalen bestaldean: “Haizeak hutsune izugarriak dauzka gogoan. Haizea, Oihana eta Iñitza Unai telebista matxuratu batean ikusita bezala gogoratzen dute. Kristal zikinen bestaldean oroitzen dute, mintzatzeko funtzionatzen ez zuten mikrofonoak tarteko. Ezin elkar ulertu.

Espetxeratu zutenean, Unai ama zen alabentzat, asko zaintzen zituen”. Zorionez, Iñitza ez duela esperientzia hori bizi dio Ursoak. “Haizeak eta Oihanak memorian hutsune edo zulo bat daukate. Frantziako egoera gogorra da, baina Espainiako espetxea gogorragoa izan da gure familiarentzat”.

Al Qaedako Unai Parot

Unai kartzelako motinen antolatzailetzat jo zuen Antoni Asunción Espainiako Barne ministro oihak. El Puerto de Santa Marian zegoela isolatu zuten. Euskal preso guztiak alde batean eta bera bakarrik bestean utzi zuten. Amak kontatua gogoratzen du Urso-

ak: “Amak arretaz segitzen zuen Unairen egoera. Bere zeldaren aurrean preso sozial baten burua moztuta utzi zioten. Puerto I-n elkarren kontra dihardute preso-en bandak. Hainbat preso soziali xantaia egin nahi izan zieten, Unai bera eta beste euskal preso bat hiltzeko”. Unai, halere, izaera lasaia dauka eta ondo moldatu da preso sozialekin. Puertoko egunkarietan Unairen “izaera arabiarra” zabaldu dute han dagoenetik: “Behinola, Unairen abizena Al Qaedako kide baten agendan aurkitu zutela zabaldu zuten egunkariak. 2007 urtean, Madrilgo kartzelan izan zen bitartean, bere ondoan islamiar bat jarri zuten preso. Patioan eta pasilloetan islamiarrekin zegoela irudiak grabatzen zituzten eta manipulatu. Epaiketetan ‘ez duzu arabiarra mintzatu?’ galdetu diote. Hortik asmatu zuten arabiarrekin harremana zuela”.

Ursoak Frantziako administrazioan lan egiten du, etxebizitza sailean. Denbora librean itzulpen lanak egiten ditu *Le Journalen*: “Ene bokazioa hizkuntzak dira, aitaren ondarea da. Ni naiz familian oharkabea pasa dena, baina anaiek diotenez, haien eskuetako hatzetako bat naiz”. ■

“Unai ez du gustuko preso bati zigorra luzatzen dioten bakoitzean bere abizena entzutea, gogorra egiten zaio. Eni berriz, Unai ahanzte-a egingo litzaidake gogorragoa”

URSOA PAROT



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



**Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua**

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Javier Arzuaga

«Che justizia-egilea ezagutu nuen, edonor hiltzeko gauza zena»

Habana. Casa Blanca auzoa. San Carlos de La Cabaña gotorlekua, XVIII. mendeko eraikuntza. Parke historikoa, hainbat museo ditu barruan. Gaueko 9etan, tiro burrunba, “9etako kanoikada”, garai batean ordu horretan ixten zirelako hiriko ateak. Oroigarri bat... Haren beste alderdia ezagutu zuen Javier Arzuagak.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

La Cabaña, kokagune turistikoa gaur egun. Zer duzu zuk La Cabañako gotorlekua?

Justizia iraultzailea... Horma... Heriotzara kondenatuak eta haien kapilaua, ni, ondoan.

Duela 50 urteko kontuak. Zu, frantziskotarra orduan, Habanan.

1952ko martxoan apaiztu, eta hilabetera Kubara destinatu ninduten. Urrian heldu nintzen Habanara. Lau urtez, irakasle izan nintzen frantziskotarren seminarioan, Santiago de las Vegasen, Habanako aireportua dagoen alderdian. Tira, 1956an, Casa Blancako parroko izendatu ninduten. Habanako auzoa da Casa Blanca, marinel auzoa, badiaz bestaldean dagoena. Auzo horretan zegoen, eta dago, La Cabaña, Jesusen Bihotzaren monumentutik harantz. Hiru urte eta hilabete batzuk egin nituen bertako parroko. Azkeneko sei hilabeteetan —edo 1959ko lehenengo dozena erdietan; nahi duzun moduan esan—, La Cabañako kartzelako presoiei laguntzen jardun nuen. Batistaren poliziak izanak ziren, edo haren armadakoak, gehienak.

Nortasun agiria

Javier Arzuaga Lasagabaster (Oñati, 1929). Fraide frantziskotar izana. Habana zaharrean zen 1959an, San Franciscoren komentuan. Zazpi urte bazeramatzan Kuban, ordurako. Casa Blanca auzoko parroko zen, lan errazean. Harik eta Batis-tak alde egin eta bizardunak botereaz jabetu ziren arte. Ondoren, festa eta algarra, eta epaiketak eta fusilatzeak, Arzuaga parroko zegoen auzoko La Cabaña gotorlekuan bertan. Eta horra gure frantziskotarra presoiei laguntzen, eta hormara bidean heriotzara. 1959ko urtarrilaren lehenengotan 31 urteko gaztea zen Javier Arzuaga, baina urteak joanagatik ere buru-bihotzetan iltzatuta darama sasoi hartako drama beldurgarria.

“Justizia iraultzailea” esan duzu arestian.

Hantxe antolatu zirelako justizia auzitegiak. Ernesto Che Guevara zen La Cabañako komandantea. Urte hartako otsailean ireki zen hormara bidea, eta hantxe harrapatu ninduen ni. Sei hilabete iraun nuen hango kapi-lau. Ez nuen uzteko aukerarik ere. Bertako parroko nintzen, bakarra, eta egiteko huraxe agindu zidaten: “La Cabañara joan behar duzu. Heriotzara kondenatuei lagundu behar diezu. Zu izango zara beste mundura bidean haiei argi berdea emango diena”.

Lehenago ere ezagutzen zenuen zuk La Cabañako kartzela...

Bai. Batista garaian ere joan izan nintzen

hara. Batistaren koinatua zen hango komandantea, Fernandez Miranda. Presoak bisitatu nahi nituela esan berari, eta haren erantzuna: “Ez, ez, oker zaude, hemen ez dago preso-rik”. Behin ere ez nuen lortu Batistaren kontrako presorik ikustea La Cabañan.

Gero, aldiz, Batistaren aldekoak izan ziren preso. Haiek ikusi zenituen...

Fandangoaren buelta: 1959ko urtarrilaren 6an Che Guevara hango komandante! Bada, hari ere joan nintzaion, presoak zirela-eta. “Komandante, mesede eske natorkizu. Tro-pari meza esaten segitu nahiko nuke, eta kartzelan dauzkazuen presoek ere lagundu nahiko nieke”. Che Guevararen erantzuna:





“Lehenengoari dagokionez, ezta pentsatu ere. Tropa kontu horiek, hemendik aurrera kito! Preso jendeaz, ingura ezazu Santa Barbararen kaperako giltza. Zeuretzat. Gau eta egun, nahi beste lan izango duzu”. Eta egia izan, ez nuen lan eskasiarik izan! Presondegi- ra joaten hasi nintzen, presoak bisitan. Hura preso pila! 300 bat lagunentzako etzalekuak izango ziren La Cabañan, baina han 800 preso baino gehiago ere eduki zituzten. Ez dakit txandaka lan egiten zuten, ala bata bestearen gainean. Ez dakit, baina ez dudarik izan: han ez zen ezertarako lekurik.

Epaiketak ere izan ziren.

Sosa Blancorena eta! Nik ez nuen haren berririk epaitu zuten egunera arte. Kirol jau- regian epaitu zuten, oraingo kirol hirian. Baina epaitu aurretik zegoen hura kondenatua, hura eta beste bi. Fidelek Santiago de Kuban lehen diskurtsoa egin zuenetik zeuden hirurak kondenatuta: “Hiru horiek fusilatu egingo ditugu!”, esan zuen orduan Fidelek. Baina epaiketa itxura hura egin nahi izan zuen. Epaiketa arratsaldean, goizean egin nuen topo Sosa Blancorekin, presondegian.

Itzulerarik gabe

“1959ko otsailaren hasieran estreinatu zuten horma. Sei hilabete egin nituen presoei heriotzara laguntzen. Jarraian, Kubako ekintza katolikoko mutil gazteekin egin nuen lan urtebetez eta, ondoren, Euskal Herrira joan nintzen, aita azkenetan zegoela jakinarazi zidaten-eta. Kubara itzultzeko baimena nekarren, baina ez zuen balio izan, ez nuela itzultzerik esan zidaten. Eta kito. Ez naiz harrezkero Kuban izan”.

Ordurako nik banekien epaiketa izango zela... eta epaitu aurretik ere kondenatuta zegoela, bai Sosa Blanco eta bai beste biak. Haien kontra deklaratu behar zuten lekukoak La Cabañara eraman zituzten, zer esan behar zuten buruz ondo ikasteko. Sierra Maestrako guajiroak ziren. Buruz ikasgarazi zieten adierazi behar zutena! Epaiketa heldu zen, ordea, eta defentsaren abokatuak buelta eman zion fandangoari, ulertzen ez zuten hizkuntza batean galdezka hasi zitzaient-eta guajiro haiei. Eta guajiroak urduri, eta fiskalak urduri, eta denak urduri. Azkenean, non edo non auzitegi kanpotik telefonoa jo zuen Fidel Castrok, epaiketa bertan behera utzi zezaten. Telebistaren aurrean jarrita ari zen epaiketa ikusten, eta ondoan izan zituen Che, Camilo Cienfuegos eta Raul, anaia... Ondoren, goizeko ordu txikitan, San Franciscoren komentura etorri zitzaizkidan militarrek, bila. “Zer, fusilamendua?”. “Ez dakigu!”, esan zidaten. Ni hartu eta La Cabañara. Sosa Blancorengana eraman ninduten. Besoetara etorri zitzaizdan: “Erreza dezagun”, esan zidan. “Goazen, ni aurretik, zu atzetik... *Aita gurea, zernetan zarena...*” nik, eta berak ondoren: “*Aita gurea,*

zeruetan zarena...". Hiru aldiz ere erreztatu genuen. Ondoren, egunsentiko argia. Fusilatu egin zuten.

Zer diozu Sosa Blancoren *mendekuaz*? Haren oinetakoen historia.

Bada, Sosa Blanco fusilatu zuten egunean, bainatzen uzteko eskatu zuen. Gero, arropa garbia eta zapata berriak jantzi zituen, etxean zeuzkan oinetakoak, artean estreinatzeke. Esan zidan: "Aita, mesede bat eskatu nahi dizut: fusila nazatenean, erantzi niri zapatak eta eman bihar bertan hemen auzoan, Casa Blanco, edo Habanako kalean fortunatzen zaizun lehenengo behartsuari. Ez esan nireak izan direla, Sosa Blancorenak izan direla jakinez gero, beharbada jantzi ere ez dituzte egingo eta!". Nik, berak agindu zidana egin nuen. Hil zutenean, zapatak erantzi eta parean gertatu zitzaizkan lehenengo pobreak eman. Horrela, Sosa Blancok eta bere oinetakoek Habanako kaleetan oinez segitu zuten, Fidel Castro eta haren jarraitzaileei adarra jo nahian.

Pedro Morejon.

Hura ere epaitu zuten, nonbait! Columbia kanpamenduan, Habanako beste aldean epaitu zuten. Otsaila zen, ez dakit hilak zenbat zuen, ez dakit zein zen asteguna. Egunsentian esnatu eta eguneroko lanak nituen zain. Komentutik irten, Aguiar kalean, Teniente Rey eta Amargura artean, Habana zaharra. Handik sigi-sagan, Amargura, San Ignacio, katedral plaza, tenpletea... badiaraino, Casa Blanco txalupa hartzera. Beste ertzera iritsi, jaitsi eta parrokiara igo. Goizeko zazpitan ttanko aldarean nintzen, meza esaten. Dozena erdi eliztar, emakumezkoak, batzuk moja jantzian. Amaitu, egunkariak irakurri, La Cabaña presoekin kontatzeko, eta gotorlekuan nintzen bederatziak orduko.

Joan nintzen, eta bila etorri zitzaizkan Migel Angel Duque Estrada, kontu-ikuskari-

Fraidetza utzi

"Kubara itzultzerik ez nuenez, baina artean frantziskotar, Kolonbiara joan nintzen, misiolari talde batean. Kolonbian ez ezik, Ekuadorren, Perun eta bestetan lan egin genuen. 1969an iritsi nintzen Puerto Ricora, nahiko erreta ordurako. Bizimodu berria behar nuen. Erromari dispentsa eskatu, baimena lortu eta ezkondu egin nintzen. Eta orain arte!".

tzako burua. "Gaur gauean fusilatuko dute Morejon". Nik: "Eta, esan diozue?". "Ez... Horixe nahi genuen, zuk esatea, faborez". "Nik esan? Nik ez dut horretan ikustekorik!". Joan nintzen La Cabañara eta han galdetu nuen: "Badaki? Esan diozue fusilatuko dutela?". "Ez... Zuk esango diozulakoan gaude". "Baina, fusilatuko duzue eta oraindik ez daki ezer?". "Neuk esan behar izan nion: "Pedro, gaur fusilatuko zaituzte. Ezer nahi baduzu...". "Aita, bakarrik egon nahiko nuke". "Ondo da. Elizkizuna ere badut parrokiara eta hura bukatutakoan, geroxeago etorriko naiz". Handik irten eta, han non entzuten dudana buila eta musika zarata inguruko gela batean. Batistaren kontrako komandanteren bat, nonbait, iraultza ospatzen, neskaz inguratuta. "Zer da hau, ordea? Non zaudeten ez dakizue, ala? Heriotza korridorea bertan eta zuek ez zarete konturatzen?". Eta orduantxe: "Aita, Aita! Pedro Morejon, bere burua hiltzen saiatu da!". Izara lepoan lotu eta zintzilik zegoen. Beste preso batek eta biok heldu eta bere onera ekarri genuen. Eta Morejonek: "Zergatik askatu nauzue?". "Eta zer egin behar genuen, bada, zeure burua akabatzen utzi? Zer esan behar dute gainerako presoek? Zer pentsatu behar dute? 'Hori oilo-bustia, hori!'. Ez, motel!". Gero barkamena eskatu nion, esan nizekionak esan nizkiolako... Gauerdian estreinatu zuten horma. "Aita, nire ondoan egon zaitez nahi dut", esan zidan. "Ondoan izango nauzu". Garaia iritsi zenean, galdetu zidan: "Zenbateraino ondoan egongo zara?". "Zure ondo-ondoan. Hementxe bertan". Eta gurutzea ateratu nuen. "Begira gurutzeari, gu biok beste inor ez balego bezala, gurutzea gora jasota, hari begira". Pelotoiak destatu zuen, tiro egin zuen, eta Pedro Morejon lurrera erori zen. Nik hantxe segitzen nuen, gurutzea gora jasota. Bera izan zen lehenengo fusilatua. Exekuzioa zuzendu zuen komandanteari joan nintzaion gero.

Tolosa etorbidea, 123 / Donostia

© 943 317 162

www.xarmajatetxea.com





AZKEN HITZA

Hil ez

“Inor hilez ez da ez hiltzen erakusten, ezta herritar hobea izaten ere. Mendekua ere alferrikakoa da, lekuz kanpokoa. Mendekatzailea bera ere ez du asetzen. La Cabaña-ko horma hark ez zuen inor ase, ez iraultzaileak, ezta kontrairaultzaileak ere, hauek ez zuten-eta handik batere etekinik atera. Fusilatuak ez batzuentzat ez besteentzat hil ziren martiri gisa. Hortaz, ‘alferrik’ hil ote ziren, bada, horma hartara lagundu nituen berrogeita hamabost kondenatu haiek?”.

“Nori bururatu zaio, ordea, tiroak preso guztiek entzuteko moduan inor fusilatzea? Nik haien ondoan emango dut gaua! Nahi duzu nirekin etorri, haiekin batera?”. Jakina, ez zuen nahi izan. Baina harrezkero fusilamendu lekua aldatu zuten. Ziega alderdi hartatik aparte, Erramuen hobian hil zituzten atzetik etorri ziren fusilatuak.

Che Guevara.

Ez dizut esango ezer mitoari buruz. Hor dago, jende askoren elastikoetan, poster eta gisakoetan. Liburu, aldizkari eta gainerakoetan. Badakigu jendeak zer dakien hartaz, heroia, gerrillaria eta hau eta hura. Iraultza egin zutela sinetsita zegoen, gerra irabazi zutela. Nik ez dut uste Chek, Fidelek eta enparauek batere gerrarik egin zutenik, inoiz behar bezalako tropa bati kontra egin ziotenik. Pare bat borrokaldi egingo zuten, gehiena jota. Batistaren soldaduek ez zuten tiro askorik egin, ez zuten idealik ere. Horra Sierra Maestra, beste mito bat. Hara, Fidelek berak inoiz egin zuen borrokarik latzena

Vargas Llosa

“Nik ez nuen La Cabañakorik idazteko asmorik, baina 2005ean Álvaro Vargas Llosa etorri zitzaidan, idazlearen semea, esanez Che Guevararen inguruko erreportajea egiten ari zela eta lekukotasun zuzenak biltzen ari zela. Telefonoz hots egin zidan, eta pare bat egun pentsatzen uzteko eskatu nion. Ez nekien garai bateko mamurik berpiztu behar nuen nire barruan. Dena dela, baietz esan nion. Artikulua idatzi zuen, eta ez zen ezer gertatu. Orduan hasi nintzen nire historia idazten. *La galera de la muerte* (Heriotza korridorea) jarri zioten izena, nik beste izen bat nahi nuen arren: *Gauerdian Habanan*”.

mikrofonoen kontra egin zuen, irriti eta telebistaren aurrean. Hantxe borrokatu zen Fidel, eta borroka irabazi zuen. Che gerrillaria... Nik bestelako irudia daukat harena. Behin baino gehiagotan hitz egin nuen berekin, La Cabañako komandantea zenez, eta ni bertako parrokoa, hango presoei heriotzara laguntzen ziena. Ezagutu nuenean hogeita hamarna urte izango genituen. Che idealista ezagutu nuen lehenengo, erradikala. Ondoren, Che justizia-egilea ezagutu nuen, batere kezkarik gabe dena txikitzeko, edonor hiltzeko gauza zena: “Justizia!”, esaten zuen berak, baina justizia ez ezik krudelkeria ere bazen harena. Aukera genuenean hitz egiten genuen. Batzuetan, elkarriketak eteten zizkiten. Beste batzuetan, lasai hitz egiteko aukera izan genuen. Harekin hitz egin nuen azken aldian, galdetu zidan: “Aizu, Aita, zer iruditzen zaizu izan dugun harremana, zein izen emango zenioke? Adiskidetasuna?”. Begietara begira-begira galdetu zidan. Nik: “Ez dakit, bada, adiskide izan garen. Horako bidean ginela esango nuke, baina ez garela helburura iritsi”. “Zuzen zaude. Ez gara adiskide izan. Zuk zeure aldera eraman nahi izan nauzu, baina porrot egin duzu. Nik, berdin, zu neure aldera ekartzen saiatu naiz, eta huts egin dut. Hurrena elkar ikusten dugunean mozorroak erantzi eta bata bestearen etsai izango gara”. Ikaratan izan nintzen. “Mozorroa erantzi? Bizian ez dut mozorrorik jantzi zure aurrean. Ez nuke jakingo ezer ezkutatzen”. Che eta biok elkarri begietara begira, etsaigorik erakutsi gabe ordea. Elkarri bostekoa eman eta irten nintzen haren bulegotik. “Ondo ibili!”, esan zidan. “Zorte on”, erantzun nion. ■

• Antxeta Irratia •

Akuilu soziala Bidasoan

Irun, Hondarribia, Hendaia, Biriatu eta Pausu auzoa (Urruña) hartzen ditu Antxeta Irratiak. Mugak ezabatzen hamar urteko zubi lana egin du, banantzen gaituena baino, elkartzen gaituena gehiago dela erakutsiz. Hedabideaz gain, elkarte eta eragile sozial indartsua ere bada eskualdean.

Testua eta argazkia:

MIKEL GARCIA

IRRATI ELKARTEA DA ANTXETA, komunika-zioa eta arlo soziala oinarri. Inguruko elkar-teen erreferente izan nahi du, eta elkarlana bultzatzen du eskualdeko gizarte eragile eta mugimenduekin. Batetik, talde horien parte-hartzea handia da antenan: Bilgune Feminis-ta, Askapena, AHTren aurkako elkarte, eskualdeko barazki-kooperatiba, Irun eta Hondarribiko etorkinekin lan egiten duen Adiskidetuak, gay eta lesbianen elkarte, Lakaxita Irungo gaztetxea, Hondarribiko Psi-logybe musika elkarte... aritzen dira kolabo-ratzaile. “Guk beti diogu hau ez dela gure *txi-ringitoa*, ni naiz orain koordinatzailea, baina

irratia ez da nirea eta erabakiak ez ditut nik hartzen, denek dugu hemen lekua, komuni-katzeko eskubide demokratikoa azpimarratu nahi dugu”, nabarmendu du Aitziber Zapi-rain irratiko koordinatzaileak.

Bestetik, eragile izatea dagokio Antxetari eta hainbat ekintza bideratzen dituzte langa-betuekin, etorkinekin edota gizarte zentroe-kin. Irrati tailerrak eman berri dituzte Lapur-diko hamaika ikastetxetan, Txingudi Korrika antolatzen dute urtero martxo hasieran, Bida-soa Euskaraz ekimenaz arduratzen dira Pau-sun, eta bertso-afariak egiten hasiko dira Eus-kararen Egunean.

Aitziber Zapi-rain Antxetako koordinatzailea eta Koldo Nausia, *Iparorratza* saio entzunenetakoaren esataria. Maia Muruaga eta Aitor Errazkin kazetariak osatzen dute irratiko lantaldea.



Auto-defentsa tailerrak hamar urteko jarduna ospatzeko

Otsailaren 14an hamar urte egingo ditu Antxeta Irratiak eta ekimen anitz jarri dituzte martxan, urteurrena ospatzeko. *Entzun, esan, adierazi!* lelopean, Antxetaren izaera zabaldu nahi dute: "Irratia entzun, guztiok entzun dezakegun arren, esateko, komunikatzeko, eta, bereziki, adierazteko aukera gutxi izaten dugu. Eta hori baino ez da, edo hori guztia da, Antxetak egiten duena". Hamar urte hauetan jorraturiko ardatz nagusietan oinarrituko dira prestatutako ekimenak: euskara, kultur-aniztasuna eta sexu-berdintasuna. "Parekidetasuna beti daukagu presente, arazo sexista franko jazotzen delako gure eskualdean, eta hedabideak, morbo guztia gainetik kenduta, tresna baliagarria dira problemari aurre egiteko", dio Aitziber Zapirainek. Azaroan, hortaz, auto-defentsa tailerrak egingo dituzte. Otsaila hasieran jardunaldi garrantzitsuak antolatu dituzte eskualdean, AMARC nazioarteko irrati elkartearen laguntzarekin: Irrati Elkartearen I. Topaketak, Frantziatik, Ingalaterratik, Irlandatik, Italiatik, Espainiatik eta Europako beste hainbat herrialdetik etorritako ordezkariekin.

Horrez gain, abian da urteurrenerako Logo Lehiaketa, "jendeak beti esan duelako inguru honetan artista pila dagoela, eta egia esan, oso emaitza onak ari gara jasotzen". Irrati-nobela Lehiaketa aurrera ateratzea ere gustatuko litzaieke; Antxeta Gauek entzuleak bildu nahi dituzte Hendaiaiko Kantu tabernan, musika oinarri; Euskararen Egunerako bertso-afaria prestatu dute Iruñen; eta Irrati Maratoia egingo dute urtarilaren 8an, Psilocyberekin batera, Herri Komunikabideen Aldeko Egunean. Azkenik, otsailaren 14ko astean, Zorion Bektak amaiera emango die ekitaldiei.



Hendaian du egoitza Antxetak, 2001eko otsailean sortu zenetik. Entzun Ikus Elkar-teak eta Pausumedia komunikazio elkarteak sostengatuta jaio zen, eta berehala Euskal Irratien Federazioan sartu (Gure Irratia, Xiberoko Botza eta Irulegiko Irratiarekin batera). Ipar Euskal Herriko lau irratiak hainbat ordu partekatzen dituzte, eta eskualdeko deskonexioekin osatzen da gainerakoa. Antxetak, zehazki, bi frekuentzia ditu: 90.5 FM Entzun Ikus elkartearekin, eta 89.7 FM Pausumediarekin.

Bi etapa nagusi bizi izan ditu irratiak, inflexio puntua izan baitzen 2006an estudioek pairatutako uholdea: "Antxeta sortu zenean, eskualdeko herri eragilean artean oso ondo txertatu zen, beraiek ere ziurrenik komunikatzeko esparru baten falta sumatzen zutelako eta hemen txoko hori aurkitu zuten bete-betean. 2006ko uholdea ordea, ez zen soilik fisikoa izan, kondizio kaskarrek gure funtzionamendua baldintzatu zuten, kolaboratzaileekin lan egitea zail bihurtu zen eta 2007 bukaeran egoera normalera itzuli ostean, laguntzaileak lortzeari ekin diogu berriz", azaldu du Zapirainek. Eta ongi doakie, 70 kolaboratzailetik gorako sarea eratu baitute. Adibidez, Psilocybe musika elkarteak on-line irratia sortu du orain dela gutxi, eta Antxetarekin duten elkarlanari esker, azken honek bere programazioan integratu ditu Psilocybek euskaraz egiten dituen emankizunak.

"Hendaian bizi den Hegoaldeko jende askok ez du Iparraldean benetako bizitzarik egiten eta guk denak batzeko ahalegina izan nahi dugu, nolabait"

Halaber, Euskal Irratietako emisioan duen parte-hartzea nabarmen handitu du azken urteetan Antxetak, batik bat *Kantaire* kultur saioaren eta eskualdeko nahiz Hego Euskal Herriko informazioaren eskutik. Tokiko programazioa ere sendotu egin da, egunerokoaren jarraipena egiten duten *Bazkialurrekoa* eta *Iparorratza* saioen bidez. Hain zuzen, *Iparorratza* da irratiaren programa izarra, Koldo Nausia esatariaren berezko estiloari esker. Eta noski, gai sozialek uhin ordu ugari hartzen

dituzte, inguruko elkartearen bilgune den *Herri Hotsak* saioan, edota Segi, gazte asanblada eta oro har gazteen bozgorailu den *Antxetamina* izenekoan. Entzuleek ez dute deitzeko ohitura-rik, koordinatzaileak dioskunez, baina jarraitzaileak izan badituzte, eta geroz eta gehiago.

Azken datuek diote 2007an Hondarribiko eta Irungo jendea bakarrik kontuan hartuz, 4.000 entzule zituztela herri horietan.

Eskualde berezia

"Izugarria da eskualde honek daukan aktualitatea. Herri eragileek ekintza pila bat egiten dituzte eta instituzioen aldetik Baionan adina prentsaurreko edo gehiago bete behar izaten ditugu, Hondarribiko, Hendaiaiko eta batez ere Irungo Udalak deituta", adierazi du Zapirainek. Antxeta euskara hutsezko hedabidea izan arren, hiru hizkuntza menpera-

tzea beharrezkoa da eskualdean lan egin ahal izateko, gaztelania eta frantsesaren menpe jarraitzen baitu askotan euskarak arlo instituzionalean, zer esanik ez Hendaiaetik harago (Urruñan, esaterako).

Dena den, irratiak ez du maite “mugaz gaindiko” terminoa (“politikari zenbaiti joko handia ematen diena”) eta mugak ezabatzea dute helburu: “Egia da dinamikak eta ohiturak ezberdinak direla batean eta bestean, eta Hendaian bizi den Hegoaldeko jende askok ez duela Iparraldean benetako bizitzarik egiten, sentsazioa da eskualdeko jendea, erdalduna batik bat, ez dela nahasten, eta guk nolabait bi munduak batzeko ahalegina izan nahi dugu, bien arteko zubia, gehiago direlako batzen gaituzten ezaugarriak, bereizten gaituztenak baino”. Horregatik, pozgarria da Behe Bidasoan lan egitea, berriek elkartasun hori azpimarratzen dutenean: Iparraldeko eta Hegoaldeko elkarten arteko hitzarmenak, jendea Korrikan eta Aberri Egunean Santiagoko Zubitik igarotzen...

Hain pozgarria ez dena, arlo ekonomikoa: Hondarribiak, Irunek eta Hendaia osatzen duten Partzuergoak emandako diru-laguntza, 6.000 euro, eskas zaie, aurrekontuaren %5. Irabazi asmorik gabeko elkartea da Antxeta, baina azpiegitura eta soldatak ordaindu behar dituzte, eta kexu da koordinatzailea: “Komunikabide batek, pribatua ez den bitartean, zerbitzu soziala du xede, eskubide bat da, eta administrazioari dagokio ordaintzea; zergak denok ordaintzen ditugun bezala, jasotzea ere denoi dagokigu. Eta ez dezatela erabili euskaraz gutxiago irakurtzen den etiketa hori, gezur hutsa, geroz eta ugariagoa da Bidasoa Media, Behe Bidasoako Hitzza edota Antxeta jarraitzen duen publikoa, ikastolak gainezka daude eskualdean... Ez dezatela saldu euskararen aldeko mezua, gero baztertu egingo badute”. ■

XIBEROA, LAPURDI ETA BAXENABARREKO BERTSULARI XAPELKETA FINALA 2010

WWW.XILABA.NET



DONIBANE LOHIZUNE AZAROAREN 13AN - 17:00ETAN JAI-JAI PILOTALEKUAN

Odel Barroso / Joanes Etxebarria / Miren Arletxe / Xumai Murua
Ekhi Erremundegi / Eneritz Zabaleta / Amets Arzallus / Sustrai Collina



Laguntzaileak:

argia

Munduaren ertzak

Badira poetak, José Luis-
sek zioen bezala, bizi-
tza min zaienak eta
min horren isla dute-
na beren poesia.

Miren Agur Meabek ere, *Bitsa eskuetan* bere azken liburuaren aurkezpenean halaxe aitortu zuen: minaren, esperientziaren eta bitsa hitsaren garaipena zela liburua. Poesiak mina gainditzeko lagundu ziola eta heldutasunaz jabetzen.

Badira, oster, beste poeta batzuk, inspirazio iturri edo estakuru bila ari-
tzen direnak han eta hemen, bizitza harrapatzen ez ezik, hurrupatzen ere badakitela erakusteko larritasun ezin-
bestekoaz. Esperientziak baino areago harridurak irabazten dituenak eta deskubrimendua bera dutena lehengai.

Biak ala biak zilegi izanik, noski, irakurlea izanen da erabakiko duena zein den bere bizitza zoriekoagoari edo hitsagoari ekarpenik egingo diona, eta bere zama arintzen lagunduko; zein izanen den, finean, esperientzia heldu eta benetako batean murgilduko duena.

Baina aitor dut, benetan, harritu egin nautela inspira-
zio bila dabilen poeta gazte baten ahotan euskaldun “zintzoak” klasista eta moderno-
etan baino areago klasista eta liberalen artean sailkatzen dituela irakurtzeak. Eta are gehiago, klasistatzat jotzeko erabilitako irizpi-
deak, euskal kulturaren produktu hain-
baten kontsumoa aipatzen delarik (ez dakit, jakin, aurrez sailkatutako pro-
duktuak ote diren, zalantzan jartzen dudak arren); eta ustez liberal edo modernoak liratekeen euskaldunak (nahiz eta oporrak Londonera pasatze-
ra joan; bide batez esanda, ez dela inolako bekatu, nire ustez), pub retro

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padrón



Sarasola

batean kokatzen direnean. Eta, batzuk zein besteak “ustez” bereizten dituen adin aldea tarteko, hain bizigarritzat jotzen den anekdota, bizitzak bere horretan eskaintzen duen esperientzia arrunt bat baino ez denean.

Badirudi, bizitza hurrupatzen dakigula demostratze-
ko eta zurrupaketa horretatik lortutako nektarra den emaitza “ustez” poetikoa edertzeko, muturra ezagutu behar dugula. Harago dagoena. Ustez ezezaguna dena (norentzat ezezaguna, ordea?).

Muturra bizitza bera da. Muturra ez dago ideologia baten edo bestearen baitan. Ez eta adinean ere. Ez dago Anjel Lertxundiren *Eskarmentuaren paperak* saiakera saritura irakurtzea besterik.

Muturra bizitza arrunta da; delako muturra, begiradan dago.

Muturra ikusi ahal izango dugu, adibidez, urrutiegi joan gabe, Espainiako Gobernuaren aldaketa berrietan, zeintzuetan emakumezkoek zuzendutako alorrek porrot egin duten edota hauen porrota agerrarazteak kezkarik agertu ez duen. Axola ez dion irudi. Eta kezka sortarazten dit baita, *reality show*ak hainbeste behar dituen herrialde honetan, oraindik, gobernu-
ko aldaketen berri eman ondoren, iruz-
kinik hedatuena, Pajin andrearen atze-
aurreak sortutakoak izatea.

Ez, ez dago erbesteko pub retro batera joan beharrik anbiguetatez jantzitako sexu esperientzia bat bizitzeko. Muturra, esan bezala, egunerokoan baitago; ertzez jositako egunerokoan.

Ertz batean kokatzeak, mundua ez du mutur bakar egiten. ■

«
Aitor dut, benetan, harritu egin nautela
inspirazio bila dabilen poeta gazte baten ahotan
euskaldun ‘zintzoak’ klasista eta modernoetan
baino areago klasista eta liberalen artean
sailkatzen dituela irakurtzeak
»

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Gorka Moreno Marquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Karrusel bizitzak



rain dela hamarkada batzuk, norbanakoaren narratiba bitalek funikular baten antza zuten. Modernitatearen zutabea den aurrerabidearen ideari jarraiki,

behe-behetik hasita ere, geure bizitzetan hobekuntzak ematen ziren, eta hortaz, biharkoa gaurkoa baino hobegoa izaten zen beti. Enplegua, akaso, kasu adierazgarrienetakoa da. Soldata baxu eta peoi gisa hasten ziren asko, denboraren poderioz soldata altuagoak eta postu hobegoak lortzen zituzten, eta honen bidez jubilazio-pentsio duinak bermatu ere. Hortaz, iraganeko bizitzek beti gora egiten zuten, kurbarik gabe, era linealean eta abiadura mantsoan. Gainera, behetik hasita ere, jakina zen ibilbide goranzkorra bermaturik zegoela. Beraz, funikularren moduan eta honen erraila aipatuta enplegua eta familia izaten ziren.

Gaur egunean, modernitate klasikotik Baumanek aipatzen duen modernitate likidorako igaroaldi honetan, aldaketak nabariak dira eta *funikular* bizitzen aurrean *karrusel* bizitzak dira gailentzen direnak. Geure bizitzetan gorabehera handiak izaten dira, enpleguari zein familiari dagokionez. Egun batetik bestera aldaketa handiak eman daitezke, eta honen ondorioz, gorabehera anitz eta abiadura ezberdin eta



INIGO AZKONA

azkarreko ibilbide biografikoak dira gaur egun nagusitzen direnak. Muturrera eramanda bada ere, sarritan ikusten dugu egun batetik bestera langabezia gelditzen dena, nahiz eta enplegu eta soldata onak izan edota beren egoera familiarrean aldaketa sakonak izaten dituen. Beste garaietan pentsaezinak ziren narratiba bital zatituak hain zuzen ere.

Zein da hobea? Lehen segurtasuna eta ziurtasuna zeuden lekue-tan orain askatasun, aukera eta emozio gehiago daude. Lehen, jaio-tzetik dena argi zegoen eta gure biografia aurretik idatzita zegoen. Horrela bada, langile baten seme-alaba langilea izango zen eta hezkuntzan aurrera egiten bazuen aukerak izango zituen gizartean aurrera egin ahal izateko. Gaur, aldiz, gauzak ez daude hain zehaz-tuta, orain geure bizitzen progra-matzaile gara momentu oro, gure eraginaren zein kanpoko –eta kontrolaezinak– diren faktoreen ondorioz. Hortaz, orain emozio eta

aukera gehiago –on zein txarrerako– daude. Emozioen eta aukeren karrusel bizitzentzako testuin-guru sozial eta kultural egokiena ez da gizarte indus-triala, baizik eta kontsumismoan eta hedonismoan oinarritutako gizarte, eta hauxe da hain zuzen ere gaur egun ikus dezakegun eszenatoki posmoderno. ■

Geure bizitzen programatzaile gara
momentu oro, gure eraginaren zein
kanpoko –eta kontrolaezinak– diren
faktoreen ondorioz. Hortaz, orain
emozio eta aukera gehiago
–on zein txarrerako– daude

TXANDAN

Juan Ramon Mankuso



Azken egun hauetan etxean ikusi dut semea *Xake Mate* –Alberto

Ladron Aranaren– liburua irakur-tzen. Institutuko lanak. Bat-batean pentsatu dut: badirudi zirrikitu guztietatik xake kirolaren azken mugimendua bertaratzen ari zai-gula. Izan ere, aspaldi honetan euskal geografian xake partida bat jokatzeko ari da; noski ez da ki-ro-la bezain atsegingarria, baina metaforak, bere gordinen, bi jokalarien argazkia islatzen du mahaiaren bueltan. Urtaroak, urteak, badoaz, eta batzuei ileak joan eta beste batzuei urdinu egin

Xake Mate

zaizkigu, eta oraindik ere, xake parti-da jolasten ari gara. Esan beharra dago, partida, askotan, eten egiten dela, jokalariek biek horrela erabakita. Baina, nekearen nekez, edo bata besteari begiratzerako-an, begiradak, nekearen zantzuak nabarmenak direlako, partidaren amaiera prestatzen ari dira. Ikuslegoa ere, partidaren joate hain luzearenga-tik, ahituta dago. Hala ere, nekeagatik edo eroso daudelako, partida ikusten jarraitu nahi dute ikusleek. Arnaldo Otegi amaierara iritsi nahi du ordea, eta batzuek galdetzen dute: zergatik orain? Erraza. Honek amaitu behar duelako. ■

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA

Askatasuna datorrela!

Ez naiz erretzailea. Orain hogeita hamar urte utzi nion, eta kuttunak erretzen duen arren, ez dit, egia esan, batere molestatzen. Joan den astean, ordea, gai honi buruz estatu legegileak hartu duen jokaera ikusiz, hainbat zalantza izan dut.

Egia da gure kontratu sozialak –jaiotzen garenean ezer jakin gabe, eta abokatu gabe sinatzen dugun kontratu ikusezin horrek–, estatuaren babesa aitortzen digula, baina, ustezko babes hori, hartzen ari den itxura hertsiaztatik edo, gero eta jasangaitzagoa egiten zait.

Ilustrazioaren ondorio, boterean jarraitu ahal izateko, estatuaren jardura zuritzeari ekin ziotenak –ikusiaz boterea jainkoarengatik zetorrela esateak barrea ere ez zuela jada eragiten–, legearen onarpenera aukeratu zuten ordezkari gisa.

Hortik aurrera, zuzenbidea jainkotiar bihurtu zuten, eta legeari buruzko mirespena hain da handia, ezen eremu guzti-guztiak legearen menpe jarri nahi dituztela. Hemen dena erregulatu egin behar da (merkatu ekonomia izan ezik, jakina), dena legearen menpe jarri, legeak neutroak, berezkoak edo denon artean egindakoak bailiran.

Eta dagoeneko, pozoia den tabakoa –harri-



DANI BLANCO

tzekoa!– saltzen uzten duten arren, ezin dugu erre, lehengoaz gain, ez parkeetan, ez eremu itxietan, ez umeen aurrean.

Baina erregularizazio zaletasun horrek ez du akaburik (ez dut gizartearekiko kontrol politiko eta sozialik aipatuko oraingoan). Bakar bakarrik norberaren eremuan, jada ezin dugu kolesterol pixka bat ere eduki, ez eta transaminasetan asteriskorik; ezin dugu

kariesdun hortz bat izan, ezin dugu griperik hartu, ez behintzat bajarik.

Ezin dugu edozer jan, ezin garela-lodikoteak izan, ezta argalegiak ere; ezin dugu edozer edan, eta ezin dugu edariekkin egon eremu irekietan. Ezin dugu malenkoniatsu egon, beti pozik baizik, eta ezin dugu bazkalostean silloian erdi etzanda egon, paseatzen edo kirola egiten baizik.

Ezin dugu kalean, espaloitik ez bada, ibili, ez eta aparkalekutik kanpo, oztoporik eragiten ez badugu ere, kotxerik utzi; ezin diogu haurrari izenik jarri, izendegian agertzen ez bada; ezin dugu kalefakziorik nahi

beste ordu piztu, energia xahutzen dugulako, eta urarekin ere, guk hemen sobera dugun urarekin –urria izango balitz bezala ikusarazi digutenez–, errudun sentitzen gara galtzen uzten badugu.

Hau al da askatasuna?

Ez deritzozue Aita Estatua gutaz gehiegi adurutzen dela... batzuetan? ■

Ilustrazioaren ondorio,
boterean jarraitu ahal izateko,
estatuaren jardura zuritzeari
ekin ziotenak, legearen
onarpenera aukeratu zuten
ordezkari gisa

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ginen helmugaren bila ustezko bide zuzenetik. Oinez. Lanabes arinez bidea irekitzen eman ditugu gure urte sasoikoenak. Gure bide zidorretatik landa, kubotaz eta garabi erraldoiez autobideak plantatu dizkigute zirkuitu itxiak egituratuz. Eskotean erositako beren auto azkarrez itzuli-mitzulika dabilta harro asko gu alboratzeko zereginetan asmatu ezinik eredu-garri. Restop lasaigarritz bete dute zirkuitua euren apen hornitzaile. Bapo dabilta haurrak manexetan nola. Autonomia Estatutua deitzen diote guncari. Urtero antolatzen dute jai publiko bat, egunero pribatua dena.

Abiatu

Albotik begiratzen jarraitzen dugu orube bilakatu dizkiguten lurak, eskuz eraikitako etxoletako biztanle behartuak. Ez gaude ezinduak, nahiz eta nire lagunmin batek esaten zidan bezala, lagun andana hiltzen ari zaigun ondorengoak preso utzita, zirkuitukoek eurearen mantenu lanek hala aginduta. Aitzurrek, palek eta karretilek estalperik gabeko eremuan herdoila bildu eta txatarre-rako egin dute. Lanabes berrien beharretan gaude, gure bidean goiti egin nahi badugu. Eta orain arte bezala, zirkuitukoak atzetik izango ditugu eraikitzaileak bailiran beren kubotak eta garabi erraldoiez gurea edertzen berena bailitza. Ez dio axola, bideak du garrantzia. ■

BERTSO BERRIAK

Miren Artetxe

Urriko egun ilun bati jarriak



BERTSULARIEN LAGUNAK

I

Goizeko seitan iratzarri nau
atearen kolpe hotsak,
ohartzera barruan ziren
uniformedun arrotzak.
Galdezka hasi zaizkidanean
dar-dar egin dit ahotsak,
baina, beldurak ezkutatzeko
aholkatu dit bihotzak.
Hotzikara bat sorrarazi dit
eskuburdinen krak hotzak...
“Bide luzea izango dun hau,
eutsi ta estutu hortzak”.

II

Amaren begien amorrua,
uzkurtutako bularra,
aitaren arnasaren estua,
bere belaunen dardarra...
“Ez ezan hau gogorrango egin,
utz gerorako negarra;
ez itzan gehiago arduratu,
atera ezan indarra!”.
Aita ta ama, orain haxe da
damutzen zaidan bakarra,
maite nautenek amesgaizto hau
barrutik bizi beharra.

III

Maiz pentsatu dut haxe gertatu
zitekeen egunean,
uniformeak gure etxera
sar zitezkeen unean,
senti nezakeen izuan eta
senti nintekeen umean.
Pentsamendu hutsa zena egi
bihurtu da azkenean.
Ta polizien bultzada batez
atea itxi denean,
inoiz izango ez naizen ni bat
gelditu da barrenean.

IV

Animo oihuak entzun ditut
kalera irten ahala,
ta ikusi dut nire lagunak
garrasika ditudala.
“Animo neska, jendeak ondo
hagola ikus dezala”.
Urrundik flashak boteaz hasi
da kamera digitala,
eta taupadak eztarriraino
igo zaizkit berehala,
gertatzen ari denaz oraintxe
ohartu banintz bezala.

V

Bi nazionalek pauso azkarrez
ta bultzaka naramate,
beraz, banoa maite ditudan
pertsonengandik aparte.
Zerbait esaten saiatu naiz ta
burua jaitsi didate.
Orain lagunak oihuak ditut
nire izuen estalpe.
Zenbat denbora pasako ote da,
berriro ikusi arte?...
Besoa jasotzea lortu dut
ta autora sartu naute.

VI

Irain ta kolpeak hasi dira
sartu orduko autora.
Behera egin dit animoak
ta adrenalinak gora.
Gerta daitezkeen mila irudi
datozkit orain gogora...
“Duintasunez gaintu ezan
bost eguneko aproba,
hire buruaz errukitzeko
edukiko dun denbora!”.
Gau hau sekula biziko dudun
luzeena izango da.

VII

Ai! Datorkidan kalbarioa
ezabatzerik balego!
Lehenik bost egun isolaturik,
poliziaren petzero,
ondoren Marlaskaren ehizaki,
gero kartzelan numero,
lau urte prebentibotan ez dut
epaiketarik espero,
ziegan zuekin gogoratuz
lokartuko naiz gauero;
eta gaitz erdi hau bizi duen
azkena izanez gero.

DOINUA: “Albizturtikan Bidaniraino”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Antzerkia

Profamateurrak agertokira

Amateurra/profesionala eskema ezbaian jartzen dute egungo antzerkigile, aktore eta antzerki zale askok. Zeren arabera jarri ohi dira etiketa horiek? Nola eragiten dute zaleok egungo euskal teatroaren inguruan dugun ezagutzan?

OIER GUILLAN

ANTTON LUKUK *Euskal kultura?* liburuan dio “amateur” hitza frantsesa izatea ez dela kasualitatea. Haren aipu bi hartuta: “Amateur izateak bere abantaila duke, eskuzabaltasuna eta musu truk aritzeak egitasuna suposatzen baitu”, eta hala ere, “Amateur/profesionala ezberdintasun hau ez da gurea”. Amateurtasuna profesionaltasunari kontrajartzeko erabili izan da, zentzu peioratiboan. Lukuk dio halaber, euskarazko lanak automatikoki sartzen dituztela sarri amateurraren multzoan.

Merkatutik erbesteraturik bizi direlako, agian? Gipuzkoan estreinatutako hainbat lan hartu dugu aintzat erreportaje honetan, eta egoera ez da oso ezberdina.

Merkatuaren arabera erabaki ohi da zer den “profesionala”, funtsean talde edo konpainia batek enpresa gisa baldintza jakin batzuk bete eta era orotako antolatzaileekin (ez soilik programatzaileekin) hartutako konpromisoak betetzeko gaitasuna duenean. “Amateur” hitza zaku bat da, merkatuaren logikan sartzen ez den ororen meta. Programazioetako dirua kudeatzeko orduan bertsio ofizialak dio euskarak ez dituela aretoak betetzen, baina horrek ez du kalitatearekin zerikusirik, eta hala ere: bada erdarekin egiten denaren pareko apusturik? Bada publikoaren aldetik, militantziazatik at, euskarazko eskaintzetara joateko borondaterik?

Munstroaren ahotsa

Urki Muguruza zarauztarrak *Munstroa* antzez-lana estreinatu berri du, balea baten inguruan jazotako pasadizoan oinarritua. Poetika propio baten bilaketaren isla da Bina-bina talde izenarekin plazaratu duena. Mikel Erguin aktorearekin batera dabil oholtzan, Muguruzak berak idatzi du testua eta gidatu du dramaturgia. “Prozesu bati aurre egiteko arazoan artean dago lanak muntatzeko eta entseatzeko azpiegitura falta. Horrek bakar-dadea eragin dezake, eta sortzailea atzera botatzea. Horregatik dira garrantzitsuak diziplina ezberdinen arteko elkarlanerako sareak”.

Estreinako emanaldiak eskaini ostean Muguruzak ez du baztertzeko leku mota bakar bat ere, baina arlo hori bere kontroletik kanpo dagoela aitortzen du. “Ahal ditudan ate guztiak joko ditut, fundamentuzko lana



Ainhoa Alberdi eta Iraia Elias dira aldamenekoak, *Eta Karmele?* antzezlanean; behekoa berri, Ainara Gurrutxaga, Dejabu taldearen *Gizona ez da txoria* obran.

ETA KARMELE?



DEJABU



DEJABU

Gizona ez da txoria (ezkerrean) eta Munstroa (eskuian) antzelanak "amateur" kontsideratzen dira. Horrelako etiketak birplanteatzeko ordua dela uste du, ordea, antzerki munduko pertsona askok.



BINA-BINA

dela iruditzen zaidalako". Profesional eta amateurren artean egin ohi den dikotomiaz galdetuta, zaila egiten zaio bere burua kokatzeari. "Bien tartean beste lerro bat ireki behar litzateke eta beste izen bat eman". Nolanahi, sailkapen horri baino gehiago beste gauza batzuei begiratzen die berak, muntatzeko orduan egileek duten exijentzia maila baita haren ustez antzerki mota bereizten duena.

Herri antzerkiaren bidetik

Herri antzerkia da amateurren zakuan sartzen den beste arlo bat. Alex Tellok esperientzia handia du maila horretan, Usurbilgo Txerriki taldean eta Topa Eszenikaren antolakuntzan egindako lanaren ildotik, besteak beste. Azkenaldian Ion Martinez *Txirikik* Aldatzen Laguntzen talde izenarekin plazaratu duen *Oteitza* =/= *gizarte*a bakarrikzeta zuzendu du. Emanaldiak antzerkilarien arteko harreman sareen bidetik lotu dituzte orain arte: "Amateuritasuna aktore-formazioaren mailan jarriko bagenu gure lan hau amateurra litzateke ziur aski. Aktore profesionalari maila jakin bat eskatuko zaio; amateuritasunaren kasuan ez da espero, baina ematen badu hobeto".

Telloren ametsa antzerkia bizimodu izatea da: "Profesionala antzerki jardueratik bizitzen ahaleginduko da. Amateurrak antzerkiarekin bizi nahi du antzerkiaz bizi baino, ahaleginduko da gauzak ahalik eta ondoen egiten baina bere diru iturriak ez ditu jarduera horretan kokatzen". Telloren ustez badira amateurren barruan sailkatu ohi diren erreferentzia esanguratsuak, *Eta Karmele?* haien artean. "Kalitate handikoa da. Obra profesionala. Profesional asko baino askoz hobea, eta izaera amateurra du, ez delako egin merkatuari begira".

Izan ala ez izan

Samara Veltek idatzitako *Eta Karmele?* antzezlanean dabil Ainhoa Alberdi aktorea Iraia Eliasekin batera. Alberdik antzerkia du bizibide eta etengabe uztartzen ditu konpainia profesionalekin egindako lanak eta amateur-

tasunean kokatu ohi diren proiektu pertsonalagoak. Ez du batzuen eta besteen artean bereizketarik egiten. "Antzerkia norbaitek zerbait komunikatu nahi duenean sortzen da, eta mila modu daude hori egiteko. Askotan amateurra deitzen zaion horretan askoz ere libreagoa zara espresatzeko". Laguntzak jasotzea xede duten taldeak dira lotuta daudenak: "Diruaren menpe egiten dute lan, horrek sistemaren preso egiten zaitu. Egiten gaitu, ni ere hor mugitzen bainaiz, bizitzeko dirua behar dudalako".

Baina... zer da profesionala izatea? Alberdik ere ez du batere argi. "Hortik bizitzea baldin bada, ni profesionala nintzateke, baina beti. Lan bera doan egiten dugunean ez da profesionala eta dirua irabazten dugunean bada profesionala? Banaketa hori soberan dago, eta bakarrik balio du nolabaiteko aktore batzuen egoak puzteko. Profesionalak kontsideratuak dauden hainbat lan baino hobeak edo behintzat parekoak direnak ikusten ditut etengabe".

Eta Karmele? amateurra izango litzateke. Batzuetan profesionalak bezala kobratzen dute, "baina afari baten truke ere egin izan dugu. Nahiago dut egin, ez egin baino; dirua ez dadila izan oztopo". Obra antolatu nahi duenari daukan aurrekontuaren arabera zintzo jokatzeko eskatzen diote: "Hiru pertsona gabiltza lanean, eta lan ona da. Ez diot harrokeriaz, nik sinistu egiten dut lan honetan, ez dauka inbidiarik profesionaletan egiten den beste hainbatekin". Alberdik Kukubiltxorekin eta Aristides Vargasekin konpartitu berri du sormen prozesu bat, eta askotan azaleratu da aipatu dikotomia. "Vargas maisu handia da, eta behin eta berriz aipatu digu banaketa hori ezabatu egingo lukeela".

Txirene antzerkia

Eduarne Agirrezabalak Txirene antzerki taldea sortu zuen Oiartzunen Begoña Amonarizekin batera. Lezoko Orratz taldean ere badabiltza. Antzezlanean biek sortzen dituzte, eta Agirrezabalak antzeztu. Hiru obra dituzte martxan: *Ogiyik karri etzun semia*, *Gezurrezko*

printzea eta *Sarean zintzilikatua*, hirugarrena estreinatu berria. *Ogjiak*...-ekin 100 emanaditik gora eskaini dute, euskarazko antzezlan “profesional” gutxik gainditutako marka.

Agirrezabalak dio maila teknikoan sentitzen direla nolabait amateurrak, taldeak ez baitu azpiegitura handirik. “Askotan antzerkira joan eta eszenografia polit batekin erdia egina dagoela ikusten duzu. Gu beti ibili behar gara eskura daukagunarekin”. Amorrua pizten zaio programatzaileei informazioa bidali eta irakurri baino lehen galdetzen diotenean: profesionala ala amateurra zara? Agirrezabalak aspalditik dauka borroka hori: “Zer da profesionala izatea? Hortaz bizi dena? Ni hortaz ere bizi naiz. Niri ziurtatzen badit norbaitek jateko edukiko dudala horretara bakarrik dedikatuko naiz, baina hemen oso mugatuta gaude”. Zenbait lekutan antzezlan bera hirugarren aldiz egitera doaz: “Non ematen dute profesionalaren karneta? Aurreiritziak programatzaileenak dira publikoarenak baino gehiago, baina egun jendearen harrera onarekin ez duzu ezer demostratzen”.

Laborategiaren bidetik

Ainara Gurrutxaga eta Urko Redondo dira Dejabu panpin laborategiaren sortzaileak, eta proiektuaren arabera elkarlanak ere bultzatu izan dituzte. Azkenaldian txotxongiloak eta hezur-haragizko aktoreen arteko harremanean ikertu dute *Gizona ez da txoria* lanarekin (sariak jaso ditu Bilboko, Serbiako eta Praga-ko antzerki jaialdietan), haurrentzako *Azken portu* antzezlanarekin estreinatu zuten iaz objektuen antzerkian oinarrituta eta berriki Arterdrama eta Le Petit Théâtre de Pain-ekin ibili dira buru belarri *Errautesak* sorkuntza lanean. Helduentzako lan berri bat aurkeztuko dute udaberri aldera.

“Bai talde amateurrek bai profesionalak, egoera estua bizi dute. Orain arteko formulek ez dute balio. Bide berriak asmatzeko garaia da”

AINARA GURRUTXAGA, DEJABU

“Hegoaldean profesionalizatzek hainbat baldintza dakartza, bizirauteko diru laguntzak eskatzea eta kosta ahala kosta emanadik saltzea, horien artean. Sorkuntza prozesuak baldintzatzen ditu horrek”. Dejabuk taldean egiten du lan, irrika pizten dieten gai, irudi edo testuetatik abiatuta. “Gure lana konpromisoan oinarritzen da, taldeak lanarekiko duen sinesmenean”. Lanaren produktiorako ez dute laguntzarik izaten eta, beraz, zailtasun handiena baliabideak lortzea da: lanerako espazioa, behar teknikoak, eszenografia elementuak eta denbora, taldekideok beste lanetan ere jarduten baitute. “Abantaila handiena askatasuna

da. Ez dugu merkatuari begira lan egiten eta beraz, guk ezartzen ditugu arauak, programatzaileei gustatzen ote zaien kezkatu gabe”. Lana zabaltzeko zailtasunak izaten dituzte: “Ez da erraza antzokietara ailegatzea. Bitartekari asko dago. Antzokien kudeaketa udalaren edo enpresa baten eskuetan egoten da gehienetan eta nahiko buruhaustea izaten da”.

Dejabuk ez du merkatuak profesionaltzat joko lukeen enpresa-azpiegiturarik, baina hala da funtzionatzeko moduan eta emaitzetan. Gurrutxagaren ustez “amateur/profesional” sailkapena zaharkitua gelditu da, eta ados daude Antton Lukuk esan izan dituenekin. “Sailkatzekotan sailka dezagun antzerkia komunikatzen eta komunikatzen ez duenaren artean, edo sakona eta azalekoaren artean”. Gainera uste du kultur egiturak birformulatzeko garaian gaudela: “Egungo errealitateak egiteko modu ezberdinak asma ditzagun eskatzen du. Zeren eta, errealitate ezberdinekin bada ere, bai talde amateurrek bai profesionalak, egoera estua bizi baitute. Orain arteko formulek ez dute balio. Bide berriak asmatzeko garaia da”. ■



**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.









**BIZKAIA
BIZIA**

Liburuak

KRITIKA

Ahotsa, hitzak, hizkuntzak.
Batzuen artean.
Euskaltzaindia. 384 orrialde. 15 euro.

Helduen literatura

Igor Estankona



Euskal poetak, Euskal Herrikoak eta beste batzuk

Literaturaren inguruko nazioarteko adostasun zientifikoari kasurik egin barik, *Euskal Olerki-Antologia* titulupean argitaratu dute euskal literatura eta gaztelaniazko literatura biltzen dituen liburu hau, itxura bikainekoa. Heliozentrismoa, kontinenteen jitoa edo eboluzio biologikoa bezain onartua dagoena –euskal literatura euskaraz egiten dena da, aleman literatura alemanez egindakoa–, ez nuke nahi, auzo lotsagatik, hemen berriro azaldu. Tristatu egiten nau axioma bat esplikatzen ibili beharra hizkuntzaren akademikoei.

Ahotsa, hitzak, hizkuntzak honen bitartez gaztelaniaz espresatzen diren idazleetako batzuk ezagutzea, esan dezadan bidena-bar, atsegina egin zait. Indartsua eta era berean fina iruditu zait Angela Figuera: “Ez badiozu zure bihotz samurrari ordu berezi/ kopuru bat egunean lan egiten uzten/ Grezian fusilatua senti dadin...” hasten den *Ez baldin bazara une batez bil* poema sano ederra da. Ez gailena, baina ederra. Hiperión argitaletxean ei daukate bere poesia osoa.

Beti da gozatsua Bitoriano Gandiagaren ahotsa entzutea.

Beti da suspergarria Blas de Oteroren indarra sentitzea.

Baina alde handia dauka gauzak hizkuntza batean edo beste batean egiteak, hori nabarmena da. Azken finean, perspektibaren araberrakoa izan ohi da ikusten den panorama: Gorbeiak, Igorretik edo Orozkotik, ez dauka forma bera. Ez naiz ari emaitzaz soilik, prozesu osoaz ari naiz. Detale batzuk aurkitu ditut zini-koak, eta beste batzuk harantza-honantza fundamentu barik dabilenarenak. Oso bestelako liburua koordinatuko zukeen, nire ustez, Euskal Herriko literaturen ikuspegi osoa daukan nonork. Antologia hau Euskaltzaindiari saldu diotenek literatura hispanikoa saldu diote, eta aukeraketa berean sartu dituzte –errespetu guztiarekin esanda– Gabriel Aresti eta Javier de Bengoechea: maila unibertsalekoak datoz Bilbon famatuak direnekin batera.

Gainera ordenagailua –esan nahi baita, erreferentziak– hizkuntza bakarrean konfiguratutik edukitzeak ez du soilik emaitza pobretzen, baizik eta akatsak ekartzen: Juan Mari Lekuonaren *Meretrix illa* poemaren bertsio jatorrizkoan “labaiñ” tildearekin dator (132. orrialdea).

Argitaratzea eta horren propaganda egitea zilegi da, noski. Batzuetan, oster, azalpen arranditsuegiek salatzen gaituzte: “*A menudo, los lectores que no conocen el euskara se acercan a la literatura vasca y chocan con el escollo de un idioma que no sólo no entienden en absoluto, sino del que ni por aproximación pueden deducir el significado de los textos literarios que se les ofrecen*”. Eta horregatik egin digute mesede hau. ■

Indridasonen thriller islandiarra

Erein eta Alberdania argitaletxeen elkarlanaren fruitu da Arnaldur Indridasonen (Reykjavik, Islandia) *Hilobiko isiltasuna* euskaraz edukitzea. Julen Gabiriak euskaratu duen eleberri poliziako hau trilogia bateko bigarrena da, eta bi editorialek sortu duten Batera Sailean argitaratu da. Reykjaviken kokatzen da istorioa: urbanizazio batean



Hilobiko isiltasuna.
Arnaldur Indridason.
Alberdania-Erein.
301 orrialde.
18 euro.

etxea egiten ari dira eta orubean pertsona baten saiheks-hezurra aurkitu. Hezurdura osoa gero. Erlendur Sveinsson inspektoreak ikertu behar du kasua, baina arkeologoi itxaron behar hezurak aspaldi-koak direla ematen duelako. Eta Erlendurrek ezin: iker-tzen hasiko da bere kabuz, gauza politik aurkitu gabe. ■

Saturrarango emakumeen testigantza

Izarren argia filma egiteko Saturraranen preso egondako emakume askoren testigantzak jaso zituzten, eta horiexek dira orain *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos* liburuan bildu dituztenak. María González Gorosarri eta Eduardo Barinaga dira lanaren egileak eta Ttarttalok publikatu du. González Gorosarri faxismo europarraren testuinguruan kokatu du Francok eta haren jarraitzaileek emakume errepublikarren aurka bultzatu zuten errepresioa. Indarkeria sexuala, ekonomikoa, instituzionala... aztertu ditu emakumearen eredu soziala aintzat hartuta. Bigarren zatian, Saturraranen izan ziren emakumeen testigantzak bildu ditu Barinagak. ■



No lloréis...
M. González, E. Barinaga.
Ttarttalo.
190 orrialde.
18,50 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Electroflak & Utt.
Flakutt.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 31'50".
10 euro.

Natura inprobisazioa bada, izpi berritzaileak gehitu

FLAKUTT oso proiektu berezia da; Uharteko Txalaparta Tailerretik (UTT) abiatu zena. Partaide batzuek txalaparta eta horren soinuak ikertzen ziharduten denbora luzez; eta halako batean, elektronika lantzen duten bidaideak aurkitu zituzten. Hala, txalaparta eta elektronika; natura eta elektrizitatea; inprobisazioa eta aurrez grabatutako soinuak; dikotomia horretan murgildu ziren, horri hainbat ahots, poesia apur bat eta bestelako instrumentuak gehituta.

Modu horretan, elektronikari bizitasun handia eman diote, natura ere erakarritik; eta musika tradizionaleko instrumentuei kolore eta ikuspegi zabalagoa eman diete. Zuzenean gutxitan aritzen dira, eta ezin bi emanaldi berdin egin. Azkeneko hippyak Nafarroan ote diren? Seguruenik, baina birziklatzeko irudimena dute.

www.myspace.com/flakutt

Flakutt

«Txalapartak daukan elkarrizketa oinarria elektronikara eta ahotsera zabaltu dugu»

Flak-Utt. Natura eta elektrizitatea biak bat eginda?

Dena asmatuta dagoela jakinda, gauza guztiak nahastea falta zaigu. Hori edo 80ko edo 90eko hamarkadara itzultzea. Fisika Kuantikoa eta sinesmena elkartzen diren mende berri honetan natura eta elektrizitatea nahasteak erraza dirudi, ezta?

“Bizilagunaren landareak kable erraldoiak irentsi ditu”. Oreka ezinezkoa da?

Bizi dugun garaian, teknokrazia eta neoliberalismo basatia nagusi, orekak ezinezkoa dirudi. Hala ere, guk itxaropena dugu eta aldaketa datorrela uste dugu. Gizakiaren borondatearen gainetik Unibertsoaren orekan sinesten dugu.

“Beti ametsetan gaudela diote, gure ametsak beste garai batekoak direla...”. Zuek, baina, atzera eta aurrera, bietara, begiratzen duzue...

Joxean Artzek idatzi zuen bezala: “Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura

betiko iturri zaharretik”.

Zer gehitu dio Flak-ek UTTri? Batasun naturala izan da, erraza?

Ilusio handia. UTT proiektu eta arlo ezberdinak sortzen saiatu da: antzerkia, performanceak, dantzak eta beste. Flakuttek hizkuntza berri bat asmatzeko UTTri eman dio UTTentzat guztiz ezezaguna zen arlo elektronikoa sartzeko bidea, eta proiektu finko batean jarraitzeko UTT inprobisaziotik idazketara bidaiatzera behartu du.

Uharteko Txalaparta Tailerrak bi buelta berri eman dizkio txalapartari?

Txalaparta bi lagun arteko elkarrizketa gisa sortzen da, eta hemen ere hori oinarri dugu. Oinarri hori musika elektronikoari eta ahotsari



zabaltuz Flakutten musika sortzen dugu. Eta bide batez musika tresnen soinuak zaharberritzen saiatu gara.


Nolakoak dira zuen emanaldiak?

Diskoak uzten ez dituen sentazioak eta diziplinak sartzen ditugu: dantza, performancea... Bidaia bat bezala ulertzen dugu, abestiak lotuak baitira, ia-ia atsedetik gabe. ■

Ezpalak

JON TORNER

Fermin Etxegoienek jaso du Literaturako Euskadi Saria



FERMIN ETXEGOIEN idazleak jaso zuen pasa den astelehenean Literaturako Euskadi Saria, euskarazko atalean, *Autokarabana* (Pamiela) lanari esker. Hurrengo egunean banatu zituzten gainerako sariak. Euskarazko Haur eta gazte Literaturako Euskadi Saria Patxi Zubizarretak irabazi du, *Xia Tenzinen bidaiak miresgarria* liburuarekin; Saiakera atalekoa Joxe Azurmendiren *Azken egunak Gandiagarekin* obrak jaso du; Itzulpen saria Jesus Mari Mendizabalek jaso du, *Eguzki kolpeagatik* –Horacio Quirogak (1878-1937) idatzi zuen hamazapi ipuineko liburu hori–; eta Ilustraziokoa Jon Mitxelenak, *Ipuin-kontalariaren lapikoa* liburuko marrazkiengatik. Atalez atal, hauxe da aurtun lehiatu den liburu kopurua:

• Euskarazko literatura: 23
• Gaztelaniazko literatura: 26 (-2)
• Euskarazko haur eta gazte literatura: 29
• Gaztelaniazko haur eta gazte literatura: 7 (-1)
• Euskarazko literatura itzulpena: 30 (-1)
• Literatura lanaren ilustrazioa: 37 (-1)
• Euskarazko saiakera: 15
• Gaztelaniazko saiakera: 13

Parentesi artean azaltzen diren zenbakiak “baldintzak ez betetzeagatik” baztertutako lanak dira.

‘Iparraldeko Konpilazioa 6’

AZAROAREN 27AN aurkeztuko dute *Iparraldeko Konpilazioa 6* izeneko diskoa. Baptiste Daleman, Underneed, Kadjo, The Red Hot Nipples, Zaparrada, Tximak, Zezenaren Taldea eta The Enterprise taldeen abestiak bilduko dituzte. Ipar Euskal Herriko musika taldeak sustatzea helburu duen egitasmo zabalago baten parte da diskoa. Azaroan, adibidez, hainbat kontzertu eskainiko dituzte aipatu taldeek eta beste batzuek. (www.iparraldekokonpilazioa.org).



Sustrai Colina, Amets Arzallus, Eneritz Zabaleta, Miren Artetxe, Odei Barroso, Ekhi Erremundegi, Joanes Etxebarria eta Xumai Murua lehiatuko dira Iparraldeko Bertsolari Txapelketako finalean. Donibane Lohizunen jokaturako da azaroaren 13an.



Karmele Artetxe izango da Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) zuzendari berria izango da, Batzar Nagusiak aho batez hala erabaki ostean. Artetxe historialaria da, eta euskal komunitate zientifikoa aztertzen egin ditu azken urteak. 2012ra arte beteko du zuzendari kargua.

Aurelio Arteta, Gustavo de Maeztu, Jorge Oteiza, Mari Puri Herrero, Andres Nagel eta beste 45 artistaren obrak bildu ditu Donostiako Kubo-Kutxa aretoko erakusketak. *Jai alai. Euskal pilotaren edertia* izenburupean, euskal pilota ardatz duten 150 artelan daude iksugai: margolanak, eskulturak, argazkiak... Erakusketa datorren urteko urtarrilaren 6an itxiko dute.



● **Kepa Altonaga idazlea luze elkarrizketatu dute Beterriko Liburuan. Hona pasartetxo bat:** «Lagun batek esan dit liburu hau [Darwin geurean] ‘amenoa’ dela. Aurreko liburuekin izan nituen kritika batzuk, baina oraingoan gehiagotan agertu dela uste dut eta erraz irakurtzen dela irakurri dute horietako batean. Ni ez nago liburuak irakurterazak izatearen alde; bai ingelesez erabiltzen den ‘readable’ terminoak adierazten duenaren alde, irakurgarri izatearen alde, alegia. Badaukat lagun bat liburu zaila dela esan didana ere, noski. Euskaraz irakurtzeko ohitura handiegirik ez duen batentzat baliteke liburu erraza ez izatea, nik nire gustuko euskara erabiltzen baitut, eta hori egin ahal izatea ez da hain erraza, editore batzuekin gora-beherak izaten baitira».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

ESTITXU EIZAGIRRE

Bertsolaritza zenbakitan

Bapatean. Bertsozale Elkartea.

Bertsozale Elkarteko bazkideok *Bapatean* liburua jaso dugu, aurreko urteko bertso aukeraketa biltzen duen lana. Urtero hasierako orrietara joaten zait begiratu, bertan azaltzen baita plazen argazkia: nolako bertso saio motak izan ziren herrialde bakoitzean. Eman diezaiozun begiratu:

2009an, Txapelketa handiaren urtean, 1.642 saio egin ziren euskal herrietan barna. Hauetatik 53 izan ziren Txapelketetakoak, 14 Lehiaketetakoak eta 72 Sariketak. Bada lehiarik bertsolaritzan! Hala ere, denak gehituta 139 dira. "Gutxi", Lagunartekoekin alderatuta: 414! Edo plaza librekoekin: 404. Edo jaialdiekin: 348. Edo Bereziekin: 215.

Iñaki Muruak arrazoi: BECen 14.000 lagun sartu zirela, baina askoz entzule gehiago biltzen dituela bertsolaritzak, plazaz plazako entzuleak batuta. 1642 saio horietara 10 lagun joatea aski BEC gaingintzeko.

Ustez bertso mundua gertu xamarretik ezagutu uste dugunok ere buruan ze irudi okerra

dugun etorri zait *Bapatean*-ekin. Bertsogintzaren zutabetzat daukagu Txapelketa, baina zenbakiak ez diote zutabe horri eusten. Urteko kopuru hauetatik gutxiago galduko litzateke zenbaki hutsetan Txapelketa desagertuta, gainerako 1.503 saioak desagertuta baino. Medioek (telebistak, irratiek, prentsaren orri mordoek, publizitate kanpainak) eragindako liluran, Txapelketa da handiena, eta jaialdiak ondoren. Aldiz, askoz gehiago dira lagunarteko saioak (bertso bazkari-afariak) eta plaza librekoak. Udaberri aldera bertsolaritza dantzan jarriko duen batek galdetu zuen ea Txapelketa fenomeno soziologikoa den medioetara eramana, edo fenomeno mediatikoa gizartea mugitzen duena. Era batera zein bestera izan, emaitza 14.000 lagun dira, baina oinarria dute desberdina. ■





2011ko egutegia

Salgai dagoeneko!



EGUREZKO TAULA

50€



EGUTEGIA

8,50€



BURNIZKO EUSKARRRIA

5€

- Hausnarketa labor ospetsuak
- Jai egunak
- Egun seinatuak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak

ESKAERAK: ☎ 943 37 15 45 | denda@argia.com

Ihesi

Testua eta argazkiak:

GORKA AZKARATE

Euskal Herria ezagutuz:

Irati (Nafarroa)



Kolore eztanda


Iratiko oihana berezko edertasuna duen natur gune berdingabea da, paisaia anitzeko altxorra. Urte osoan, paisaia ikusgarriak egingo dio harrera gerturatzen den bisitari orori. Izan ere, urtaro bakoitzak bere ñabardurak ditu Iratin.



MENDI IBILALDIAK norbere ahalmen-nera egokitzeko aukera eskaintzen du, beste natur gune batzuek ez bezala, Iratik. Kilometro askoko ibilaldi luzeak egiteko irrika duenak erraz ase dezake Iratin bere gosea.

Familia giroko txango laburrak nahiago dituzten horiek ere, ordea, Iratiko oihanaren taupadez gozatzeko aukera izango dute, modu errazean. Modu egokian markaturik dauden hamasei ibilaldi laburreko

zirkuitua dauka Iratiko natur guneak bisitariarentzat eskuragarri. Horietako bost ezagutaraziko dira ondorengo lerrootan, baina aukera zinez da anitzagoa. Bisitariak bestelako argibiderik nahiko balu, Otsa-



gabia, Orreaga eta Garraldako informazio bulegoetan eska dezake, eta baita Arrazolan –Irabiako urte-gira bidean dagoen herria, Aezkoa haranean– eta Elurretako Ama Bir-jinaren ermitatik gertu dauden harrera gunetan.

Abodiko gainak

Abodiko mendilerroa: soilguneak eta basoak, ia malkarrik gabeko gailurreria belartsu amaigabea. 1.500 metrotik gora zutitzen den gailur nagusiaz gain, hainbat tontor apalago gordetzen ditu bere baitan mendilerro ezagunak. Iratiko oihanaren hegoaldeko muga naturala da, nafar Pirinio osoaren behatoki paregabea.

Otsagabiatik Elurretako Ama Birjinaren harrera gunera doan errepideari jarraituz, Taplako lepoa igaroko dugu harrera gunera bertara iritsi baino lehen. Igarobide natural hau oso altu dago, eta bertatik abiatuz gero erraz egingo dugu aurrera, sei kilometroko ibilbidea eginez Abodiko gailur nagusiraino, 200 metroko garaiera gaindituz. Bidean, mendetan hain garrantzitsua izan den Alportxen pasabidea zeharkatuko dugu, zamaketarien gainean garai batean jarri ohi ziren alportxen itxura duen pasabide naturaletik. Harritzabalako trikuha-

rria bisitatu eta erraz egingo dugu gorantz, paisaiatz eta ikuspegiak gozatuz, Abodiko gailurrera heldu arte (1.533 m).

Itbilbide hau errazegia dela uste dutenek badute, bestalde, Abodiko mazeletara igotzeko modu zailxeagorik: Irabiako urtegitik abiatzen den bidea egitea da aukeretako bat, eta Aezkoa-Hiriberritik bertatik abiatzea, bestea. Lehenengo aukera osatzeko, Irabiako urtegiari bira eginenez hasiko dugu txangoa, eta ahal izan bezain laster, urtegiaren itzulia baztertu eta gorantz abiatuko gara, malda piko xamarra gaindituz —une batean errepidea zeharkatu beharko dugu— Mendebaldeko Abodiko tontorrera heltzeko. Behin gailur horretan, Taplako igarobidetik datorren bidearekin bat egingo dugu, eta erraz osatuko ditugu azkeneko bizpahiru kilometroak.

Irabiako urtegiari itzulia

Iratiko oihanera joaten diren bisitari askok egin ohi dute Irabiako urtegia inguratzen duen ibilbidea. Hamar kilometro luze da, baina ia erabat laua: orotara, 80 metroko gorabehera baino ez. Aezkoa haraneko sarbidea erabili daiteke abiapuntu, baina baita Zaraitzuko haraneko sarbidea ere. Lehenengo kasuan, Irabiako

urtegiaren euste hormatik gertu dagoen aparkaleku txikian abiatuko dugu gure ibilia eta bigarren kasuan, berriz, Elurretako Ama Birjinaren ermitatik gertu dagoen harrera lekuan. Bigarren hau hautatzeko-tan, orde, hiruzpalau kilometro ibili beharko dugu lehenik, Iratiko basozainen etxera heldu eta urtegia inguratzen duen ibilbidearekin bat egin eta ibilbidea bera osatzeari ekitoko.

Ibilbidea ederra da, zinez. Hamar kilometro luze den arren, apenas eskatuko digu ahaleginik. Urtegiko euste hormatik gertu dagoen apar-kalekutik abiatuz, euste horma bera zeharkatu eta basoan barneratuko da xenda, lehenik basozainen etxera iristeko. Behin horra iritsita, itzulia-ren bigarren zatiari ekingo diogu, hartxintzar bide zabal bati jarraiki. Aipagarria da Egurgi zubitik gertu aurkituko dugun bidegurutzea: Ira-biako urtegiaren itzuliarekin jarraitzea da aukera bat, baina ez bakarra.

Okabe mendi sakratuaren oinean gaude, eta bertara igotzeko abiapuntuetako bat da Egurgi zubia—Urkuluko gandorra zeharkatu eta ibilbide zoragarria osatuz iritsiko ginateke Okabera—. Bestetik, bidegurutze honetan zabaltzen den arroari jarraituz, Artxilondoko parajea ere eskura dugu. Tentagarrak, aukera denak ere. Guk ordea. Irabiako urtegiaren itzuliarekin jarraitu eta aparkalekura helduko gara ostera, tarteka zuhaixken arteko zirrikituetatik urtegiari so egiten diogun bitartean. Zirrikitu batzuk handixeagoak dira, eta bidean hondartza moduko soilgune koxkorren bat edo beste ere aurkituko dugu, urtegiaren gaineko ikuspegi zoragarriaz gozatzeko beta emango digutenak.

Koixtako urtegira txangoa

Koixtako urtegirainoko joan-etorri-ko ibilbidea Iratin egin daitekeen txango zirkular ederrenetakoa dugu, zalantza izpirik gabe. Joane-koan zein itzulerakoan xenda berbera urratu beharrean, bide batetik joan eta beste batetik itzultzea proposatzen da, Iratiko oihaneko txoko gehiago ezagutzeko helburuarekin.

Horrela, joanekoan Koixtako bide zaharra deritzon tokiko xenda-



Urtxuria erreka, Koixtako urtegiaren bidean.

ri jarraitzea izan daiteke aukera bat, Iratiko Etxeetako bide zaharra deritzon xendari jarraituz itzulerakoan. Guztira, hamaika kilometro inguru luze den zirkulua osatuko dugu, eta 500 metro inguruko gorabehera gainditu. Joaneko bidexka basati xamarra da, eta beraz mendian ibiltzeko ohitura izatea komenigarria da. Itzulerako zatiak, berriz –Iratiko etxeetako bide zaharra–, ez du aparteko zailtasunik, zenbait malda piko xamar igotzea eskatzen badu ere.

Taplako pasabidean barrena Elurretako Ama Birjinaren harrera lekura heldu baino bihurgune pare bat lehenago topatuko dugu Koixtako bide zaharraren abiapuntua. Xenda malkartsuari jarraiki, pago eta izei baso bikainak ikuskatzeko aukera izango dugu, hartxintzarrezko pista batera heldu baino lehen, Koixtako urtegitik kilometro batera edo. Iratiko Etxeetako bide zaharri ekin aurretik, merezi du, Urtxuria errekaaren arroa gorantz jarraituz, Koixtako urtegi euste hormarai-

no inguratzea, ikusgai izango dugun paisaiak ez baikaitu aiherga utziko.


Koixtako urtegi txikian atseden hartu ostean, atzera Elurretako Ama Birjinaren harrera lekura zuzenduko dugu gure ibilia, baina oraingoan Iratiko Etxeetako bide zaharretik. Ibilbideko lehen metroak desegin eta berehala aurkituko dugu arroa utzi eta eskuinera jotzen duen bidea, poliki-poliki garaiera irabaziz joango dena.

Izerdi pixka bat isuri eta laster iritsiko gara Akerharriako soilguneetara. Basoan barrena paraje zoragarri honetara ekarri gaituen xenda magikoa iruditu bazaigu, zer esan Akerharriako soilgunea zeharkatzen duen bidexkaz: sorginkeria zantzuak hautemango dizkiogu, gure gogoari hegal egiten uzteko gai bagara. Bide nagusia une batez utzita, amildegi baten gainean kokaturiko Akerharriako begiratokira desbideratzea ere izango dugu, alferrik galtzea komeni ez den aukera. Basoan barneratuko gara oster, eta pen-


diz malkartsua kontu handiz jaitsi ostean, Zentzumenen ibilbidearekin bat egingo dugu, eta Elurretako Ama Birjinaren ermitatxoko atara bertara ailegatuko. Pasa den mendeko 50eko hamarkadaren erdi aldean eraiki zuten Elurretako Ama Birjinaren ermita, eta gaur egun Iratiko paisaian erabat barneratua dagoela esan daiteke, sinesmenak sinesmen. Ibilbidearen amaiera, harrera-lekua, ermita baino metro batzuk beherago dago.

Zentzumenen ibilbidea

Ibilbide laburra da, baina ederretan ederra. Haren izenak dioena ez da esate bat. Pausorik pauso aurrera egin ahala, zentzumenak piztuko dizkigu Iratiko oihanak. Kolore eta soinu eztanda erabatekoa izango da bi kilometro pasatxo luze baino ez den ibilbidean barrena. Ibilbideak apenas duen gorabeherarik, chun metro eskas baino ez. Elurretako Ama Birjinaren ermita igaro ostean, basoan barneratuko gara. Urtxuria



Lerro hauen gainean: errekastoa Zabaletako oihaneko bide zaharrean. Esquinean, goian: Elurretako Ama Birjinaren ermita, Iratiko Etxeetan. Azpian: Orhi mendia.



erreka zeharkatzea ere eskatuko digu ibilbideak: normalean, erreka honen emaria ez da gure ibilia oztopatzeko bezainbestekoa izango, baina zenbait sasaitan ezin saihestu hankak bustitzea. Aipagarria da ibilbidean barrena zuhaitz eta adaxkez mintzo zaigun kartel sorta, oraintsu jarritakoa.

Zabaletako oihaneko bide zaharra

Elurretako Ama Birjinaren ermitatik gertu dagoen harrera lekutik

abiatu eta Irabiako basozainen etxeraino iritsi ostean, berriro Elurretako Ama Birjinaren ermitako harrera lekura itzuliko gara. Hori bai: bide ezberdinak jarraituko ditugu joanekoan zein itzuleran. Joanekoan, hartxintzarrezko baso bidea hartu baina berehala utziko dugu, eskuinerantz bira egin eta mendian gora sigi-saga abiatzen den bidexka urratzeko. Malda pikoa da, baina laburra. Jarraian, basoan barrena aurrera egingo dugu, jai-

tsiera piko batek oster hartxintzarrezko baso bidera eramango gaituen arte. Baso bide zabal horri jarraitu eta basozainen etxera ailegatuko gara. Atzera Elurretako Ama Birjinaren ermitako harrera lekura itzultzeko, baso bidea aurka ko noranzkoan jarraitu baino ez dugu egin beharko, bidezidor malurtsuak alboan lagaz. Guztira, zortzi kilometroko pasatxoko ibilbide ederra, eta 250 metroko gorabehera. Goatzeko moduko txangoa. ■



Atxaspi Hotela

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

ILOBA (BIZK) PERTSONAIAREN SORTERRIA	MORAL KIRIO	57 ERROMATAR ZENBAKIZ JUNTAGAILUA	... HOC, LATINEZKO LOKUZIOA JOAN DEN URTEA	DIHOA LETRA IZENA	XAKEAN, LEHEN LERROAN JARTZEN DEN FITXA	HORI DELA ETA, HORTAZ AMORRUA
ATZIZKI: BEHEKOA HAITZULO			SAMOAKO HERRITAR POTENTZIA		EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ PERTSONAIA- REN IZENA	
				AI SATU ADITZAREN ERROA OINARRIZKO EDARI		
ABERE- TALDE	HERRI HIZ- KERAN, BADA PERTSONAIA- REN ABIZENA				UKATZEKO LETRATU, LEGELARI	
		SAKRATUA		NONDAR ATZIZKIA LIBRE, ASKE		OLIBAREN ZUKUA (PLURALA)
BEGIRADA (ALDERAN- TIZ) OSMIOA						
	ANPEREA ORDAINDU GABE			GABON KANTA KONTSONAN TE ERREPI- KATUTA		
KROMOSO- MEN OSAGAIA AKTORE GARRANTZI- TSUENA		HUTS, ERRU ALUMINIOA	INDIOA EGOKI	SUFREA ATOMO KARGATU	PORTU ERRUSIAKO IBAIA	
						OXIGENOA UNIBERTSI- TATE ESKOLA
BARATZE- ARLO ORO, GUZTIA			BETEA GIGA			
		ALFER		ZARETEN HAUEK		

Kike Amonarizen umorea

Jehovaren lekukoa

Emakume gaztea Bilboko Mazarredo etorbideko denda batera sartu da, besazpian karpeta beltz bat duela:

– Arratsalde on! Izan nahi zenuke Jehovahren lekukoa? –galdetu dio dendariari.

Eta honek erantzun:
– Barkatu, baina ez dut istripua ikusi.



Soluzioa

B	P	H	E	A	D	O	S	A	M	O	A	R	A	I	S	A	U	R	E	Z	T	A	R	O	L	I	B	R	O	N	O	E	L	I	S	K	A	I	O	I	S	T	A	O	A	T	A	U	A	Z	U	E	K
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---

Euskarak milaka aurpegi, milaka ahots



Parte hartu euskararen
mosaikoan zure argazkia bidaliz

www.nikereeuskaraz.net

Abenduaren 3a ere, Euskararen Eguna



Beldurrezko eta Fantasiako Zinemaren XXI. Astea

Urriak 30 - Azaroak 5

Euskaraz azpidatzitako hamar film luze
eta hamalau film labur proiektatuko dira.
Victoria Eugenia / Antzoki Zaharrean



Lisistrata

Abenduak 2, 20:00

Antzoki Zaharra



Bisita gidatuak

Abenduak 3, 4 eta 5: Kubo-kutxara bisita

Abenduak 4: Chillida Lekura bisita



Mintzodromoa

Abenduak 3

Artess Kafea



Repentistak-bertsolariak

Abenduak 3, 20:00


Antzoki Zaharra



Zurrunbiloa

Abenduak 3, 18:30-23:00

Boulevard



Gaztezulo bideo-lehiaketa festa

Abenduak 3, 22:00

Doka



Bide Ertzean "Don Inorrez"

Azaroak 3, 19:00

Fnac



Ttakun Ttan Ttakun

Azaroak 4, 19:00

Fnac



Xabinaitor

Azaroak 11-14, 20:00

Azaroak 13, 20:00 eta 22:30

Antzoki Zaharra



Euskararen eguna auzoka

Azaroak 26

Intxaurreondo

Azaroak 27

Antigua / Gros / Egia / Altza / Parte Zaharra

Hainbat ekitaldi egunean zehar

Osasuna

JABIER AGIRRE

Nahastu behar ez diren janariak eta botikak

BOTIKA BAT HARTZEN DUGUNEAN, edozein bidetatik hartzen dugula ere, botikak ibilbide jakina egiten du gorputzaren barruan: xurgapena, banaketa, metabolismoa eta, azkenik, eliminazioa. Bide horretan, gorputzak xurgatu eta bere mesederako erabiltzen du botika. Baina aurretik, bitartean edo ondoren ahoratzen ditugun jan-edanen arabera, botikaren eragina murriztua gerta daiteke, farmakozinetikaren legeen eraginez. Horregatik, hainbat gauza argi edukitzea komeni da.

Eraginkortasuna galtzea: Ondorengo botiken eragina gutxitu egingo da, osagai jakin batzuekin nahastuz gero:



VITADELIA.COM

► **Antibiotikoak.** Gorputzak ez ditu ondo xurgatuko esnearekin batera hartuz gero, ezta urdaileko azidotasuna (edo bihotzerrea) eragiten duten janariekin batera ere (laranja-zukua, limoia edo pomeloa).

► **Diuretikoak** ez dira erregulizarekin batera nahastu behar, eragina asko gutxitzen baita. Gauza bera gertatzen da tentsio arteriala kontrolatzeko botikak hartzen direnean ere.

► **Antikoagulanteak.** Bruselazak, azaloreak, brokoliak eta antzekoek botika horien efikazia gutxitzen dute. Baita K bitaminatan

aberatsak diren elikagaiek ere (erremolatxak, ilarrak edo te berdeak).

► **Ahotiko antisorgailuak.** Horrelakorik hartuz gero, ez nahastu pomelozukuekin, bestela gibelak zailtasun gehiago izango baitu antisorgailuaren lehengai aktiboak gorputz osoan behar bezala banatzeko.

► **Depresioaren kontrako botikak.** Litiodunak baldin badira, garrantzi handikoa da gatz gutxiko dieta egitea. Gehiegizko gatzak mineral horren ekintza blokeatu egin dezake.

Kontrako efektua. Eragina gutxitzeaz gain, botiken eta elikagaien konbinazio desegoki batek, medikaziotik espero dugun eraginaren justu kontrakoa izatea ekar dezake. Hori gertatzen da, adibidez, zitrikoetan, kafean eta esnekietan presente dauden substantzia batzuekin. Aurreko bi alboondorio horiek saihesteko, onena botikak ur pixka batekin hartzea da, giro-tenperaturan.

Alkohola bereziki arriskutsua da. Edari alkoholikoek interferentzia larriak eragin ditzakete botika ugariarekin. Arreta berezia eduki behar da azido azetilsalizilikoarekin, parasetamolarekin, antidiabetikoekin eta antihistaminikoekin.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Emakumeen desioa pizteko pilularik ez oraingoiz

Boehringer Ingelheim laborategi alemaniarrek bertan behera utzi du flibanserina molekula garatzeko ikerketa. "Emakumeen viagra" esan izan zaio andrazkoen sexu-desioa azkartzeko helburua leukakeen botika horri. AEBetako FDAren (Food and Drug Administration) kontrako iritziak bultzatu du Boehringer Ingelheim erabakia hartzera.

<http://ttiki.com/18296> (Frantsesez)

Min kronikoari aurre egitea ez da erraza Espainian

Espainiako Estatuan min kronikoa daukaten gaixoen erdiak baino gehiagok urte bi behar du, gutxienez, tratamendu eraginkorra lortzeko. Estatuko biztanleen %11k dauka gaitz hori.

<http://ttiki.com/18297> (Gaztelaniaz)

Menopausiaren zergatiaren bila itsasoan

Zehatzago esateko, zetazeoekin egiten ari dira ikerketa, emakumeek menopausia zergatik duten argitze aldera. Badirudi "Amamaren hipotesia" deritzonak duela jarraitzaile gehien. Menopausia gaixotasun izendatu duen tesi oker eta interesatua sustatzeko erabiliko dituzte ikerketaren emaitzak?

<http://ttiki.com/18298> (Euskaraz)

Unai Brea


Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Xaramela

UDAZKEN BETEKO giro paregabea, goizeko freskuraren gaineko hego haizearen purrustada, putz eta ufada artean babarrun biltzen ari gara. Gaurkoan pardetan arbatutakoan, kanaberatan gora hazi dena. Aihena eskubiz aurrera igo zen kanabera gora. Eskubiz aurrera, lurrera lotzen gaituen indarrari, astuntasuna edo grabitateari ihes eginez gora hazteko era errazena eta merkeena delako. Hazi, igo zen babarrun landarea (*Phaseolus vulgaris*) eta orain leka iharrak eskuetan, neguko erregina den azaren (*Brassica oleracea*) laguntzaile izango denaren saltsa gogoan, hortzak izerdi. Hortzak izerdi eta bizkarrean dudak iparreko itsasoari haizetan bidaltzen dizkiogun kantuak ezin xaramelatu.

Xaramelak, txilibituak edo txirulak, kanaberaz egiten dira. Baita organoen tutu batzuk edo haizezko musika tresnen muturreko xafalak. Musika kanabera deitzen zaio babarruna arbatzeko erabili dugun kanabera berari.



Kanabera, *Arundo donax*, eta haizearen arteko tratua aspaldikoa da, sekulakoa. Sokatira luze eta nekeza izan zen, baina halako batean adostu zuten bien arteko armonia: kanaberak bere kumeen giarrak zaildu nahi zituenan dantzan hasi eta haizea sortuko zuen, bueltan haizeak harro astindu behar.

Toki jakin batzuetako kanaberak garesti ordaintzen dira, Proventzako Var departamentu aldekoa, adibidez. Lur hauetan hazten diren mahasti, olibondo, marugatze eta batez ere izpilikuak dira ezagunak. Azken hauen soroak, lore more ubelez jantzitako errenkadako itsasoak ez dira nonahi ikusten... Izpilikuen lurrin gozoz betetako haize epelak ontzen ditu musika jantzienetakoa egiten duten kanaberak. Beste haize batzuek astintzen dituzte Argentinako Mendozako kanaberadi ospetsuak. Seguru asko munduko ekoizle handiena. Musikariaren ahoetara helitzen diren haizeak, haize musikak sortzeko.

130.000.000

Txinatarrak asko izan. Jateko erabiltzen dituzten 130 milioi txotx edo palillo doaz zaborretara egunero! Gutxi asko, urtean 45.000 milioi txotx. Urtero hogei bat milioi zaborretara! 400.000 m² baso pikutara egunero. Astakeria honi aurre egiteko asmo bati ekin zaio: "Zeure txotxak erabili". Bakoitzak bere txotxak erabili eta botatzeko horiek baztertu. Berri gehiago hemen: <http://tiki.com/18303>.



THE-5-CS.BLOGSPOT.COM



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserriarren Kooperatiba
Ugarte Industrialdea 12 Usurbil 20170 Gipuzkoa

- Elikagai ekologikoak
- Usurbilgo baserrietako produktuak
- Sagardogintzarako tresneria
- Tratamendu naturalak
- Onttoen haziak...
- Banaketa zerbitzua

DENDAREN ORDUTEGIA
Astelehenetik-Ostiralerara: 9etatik-13tara eta 16etatik-19.30tara
Larunbatetan: 9etatik-13tara

Tel/Fax.: 943 36 11 14
www.alkartasunausurbil.com • alkartasuna@usurbil.com

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Mademoiselle ala chevalier?

PARIS, 1810. Charles Geneviève Louise Auguste Andrée Timothée d'Eon de Beaumont hil zen 81 urte zituela. Emakumezko hiru izen zituen eta gizonezko beste hiru. Dualtasun horrek bizi guztian iraun zuen, baina autopsiak, itxuraz, zalantzak argitu zituen: "D'Eon zaldunaren gorpua aztertu eta disezioa egin diodala eta organo maskulinoak erabat garatuta topatu ditudala egiaztatzen dut".

Gizonezko moduan bizi zen d'Eon, Louis XV.aren inteligentzia zerbitzuburuak, Conti printzeak, Errusiara bidali zuenean, bi herrialdeen arteko harreman labainak estutu asmoz. Elisabet I.a tsarinarengana hurbiltzea zaila izango zela jakitun, emakumez jantzita iritsi zen San Petersburgora. Estrategiak emaitza ezin hobea lortu zuen: d'Eonek tsarinaren konfiantza eskuratu zuen berehala. Geroago gizonezko moduan itzuli zen Errusiako gortera eta bere burua mademoiselle Deaumonten anaia gisa aurkeztu zuen. Anbiguotasun horrek zurrumurruek piztu zituen jaioterrian.

Egindako lan diplomatikoa eskertzeko kapitain izendatu zuten eta Zazpi Urteko Gerran lan bikaina egin zuen. Zurrumurruek itzali ziren orduan, emakumezko batek, nonbait, ezin zuelako gerran halako jarrera ausartik izan. Gobernuak Londrese- ra bidali zuen gero, enbaxadorearen idazkari izateko. Han ere karrera militar arrakastatsua izan zuen eta Ohorezko Legioko kapitain izatera iritsi zen.

Louis XVI.ak aitona ordezkatu zuenean, d'Eonek Parisera itzultzeko baimena eskatu zuen, baina erregeak ukatu egin zion. Haserre, sekretu diplomatikoak argitaratzen hasi zen eta Versailleseko gobernu negoziatzera behartu zuen. Diru kopuru bikaina jaso zuen isiltasunaren truke, eta Parisa itzultzeko aukera izango zuen, emakumea



Ezkerrean Mademoiselle de Beaumont eta eskuinean Chevalier d'Eon. Biak, andereñoa eta zalduna, pertsona bera ziren eta gaur egun oraindik ez dago garbi emakumezkoa ala gizonezkoa zen.

zela egiaztatu eta sekula berriro gizonezko identitatea hartzen ez bazuen. Eta hala egin zuen. Ordurako bere sexuari buruzko apustuek 300.000 liberako funtsa bildua zuten eta medikuen ziurtagiriak emakume zela adierazi zuenean, bat baino gehiago aberastu zen.

Frantziako Iraultzak monarkiak jarritako baldintzak indargabetu arren, d'Eonek emakume moduan jokatzen jarraitu zuen ia 40 urtez, hil arte. Eta orduan, autopsiak gizonezko jaiio zela esan zuenean galderak hasi ziren berriro: zergatik eman zituzten medikuek kontrako diagnostikoak?

Erantzun garbia eman zuen garai hartan emakumeetan aditu handiena zen Giaomo Casanovak: "Gizon jokamoldea izan arren, hamabost minutu ere ez nituen behar izan emakumezkoa zela jakiteko".

Arrastoak

Belarrian dago gakoa

VINCENT VAN GOGH artearen historiako margolari nagusietakoa da eta bere lanek marka guztiak hautsi dituzte enkanteetan. Baina, dirudienez, gehienek ez dute bere lana gogoan. Het Dolhuys Herbehereetako Psikiatria Museo Nazionalak inkesta bat burutu du, maisua ezagun

zergatik den galdetuz. Mundu osoko 600 pertsonak erantzun diote galderari eta erdiak baino gehiagok ebakitako belarria gogoan dutela erantzun dute. Bigarren postua "artista, margolaria zen" erantzunak lortu du eta, hirugarrenik, *Ekiloreak* lanagatik oroitzen dute.



VINCENT VAN GOGH

Erretreten erreforma

Gazteak eta helduak
haserrean bat eginda

Nicolas Sarkozyren
Gobernuak aurrera atera du
Senatuan erretreten
erreforma. Asteotan azken
hamarkadatako herri
mugimendu sendoena bizi
dute Frantziako eta Ipar
Euskal Herriko karrikek.
Langileek eta ikasleek bat
egin dute Gobernuak sistema
insolidarioa gibelera dezan.
Herritarrak akituta daude
euren eskubideen
zanpatzeaz.

URKO APAOLAZA

“*LE VIEILLISSEMENT ne peut pas se contourner, il faut l'assumer*” (Zahartzea ezin da eragotzi, onartu beharra dugu). Esaldi horrekin iragarri zuen ekainaren 16an Eric Woerth Frantziako Lan ministroak erretreta atzeratzeko erreforma. Beste kontu batzuen artean, Sarkozyk 60 urtetik 62ra igoko du erretiroa hartzeko urtea, pentsioa osorik kobratzeko kotizatu beharreko urte kopurua ere handitu egingo da 2012tik aurrera: 41 urte. Eta hala egiten ez duenak 67 urterekin jaso ahal izango du pentsio osoa, lehenengo 65 urteren aldean. Funtsean, diru gutxiago eta lan gehiago eskaini die frantziarrei Gobernuak,



GAIZKA IROZ

Lizeoetako ikasleak erretreten erreformaren kontra manifestatzen Baionan.

zahartzearen izenean (NET HURBIL sailean aurkituko ditu irakurleak pentsioen erreformaren atzean ezkutatzaren denari buruzko datuak, 48. orrialdean).

Woerthen ekaineko agerraldi horretatik, Gobernuaren proiektuaren kontrako perturbazioak ez dira handitu besterik egin eta azken

asteetan gertakariak bizkortu egin dira, klimaxa iritsi delarik joan den urriaren azkenetan, findegietako grebak eta blokeoek Frantzia osoko garraio sarea arteka zailean utzi dutenean. Lerro hauek idazterako orduan petrolio hornidura bere onera itzultzen ari da baina mobilizazio jendetsuek jarraitzen dute eta

Michaël Alzibar, Oldartu plataformako kidea “Gobernuak uko egin dio karrikaren legitimitateari”

Protestak erretreten erreformaren kontrakoak dira, baina askoren ustez Sarkozyren politika orokorraren kontra ere badira. Non dago jendearen haserre horren jatorria?

Iparraldean eta Frantzia gertatzen ari dena krisi politikoa da. Gobernuak jendearen eta karrikaren zilegitasunari uko egin dio, erranez “bil zaitezke karriketan eta hala ere guk gure proiektua mantenduko dugu”. Horretan oinarritzen da haserre gehiena, Gobernuak ez duelako entzuten jendeak aldarrikatzen duena. Hori erreforma baino gehiago da niretzat.

Gobernuak aurretik egindako beste politika batzuei erantzuna al da? Sarkozyren irudia ezbaian dago erabat.

Segur aski hori ere bada. Frantzia mugimendu sozialak aspaldi ez duela zerbait irabazi, 1995etik Frantzia dena galdu da: 2003an greba izugarriak egin ziren eta galdu egin genuen, trenbideetan ere erreformak izan dira eta haiek galdu egin dute... Soilik ikasleak atera dira irabazle, 2006an, CPE proiektua atzeratu zutenean, haiek dira bakarrak. Gizartean ari da haserre iraunkor bat sortzen eskuindar politika eta kapitalismoari begira. Gero eta gehiago konturatzen dira Frantzia badirela bi ibilbide, bata aberatsentzat eta bestea beste guztientzat.

Deigarriak izan dira protesta hauetan hartutako borroka moldeak: findegiak greban, bideak blokeatuta... Gobernu egoera larrian utzi dute.

Beste borroka mota bat sortu da hemen, estrategikoa. Arrazoa aski sinplea da: Gobernuak ulertzen du ekonomia dela garrantzitsuena eta arlo soziala edo kultura ez dira inportanteak. Beraz, jendeak zer pentsatu du? Ekonomia blokatzea. Frantzia, horretarako petrolioak blokatu behar da. Findegietan ikusi dugu Gobernuak ez duela nola erantzun, polizia bidaltzen duela aldi oro grebak hausteko edo legearen bidez langileak lanera bortxatzeko.

Eraginkorragoa da?

Badakigu egoera ekonomikoagatik zaila dela greba



orokorra egitea eta horregatik ari gara borroka estrategikoak egiten. Grebak astero egiten ditugu egun batez, eta gainerako egunetan, Oldarturen kasuan, ekintzak egiten ditugu: joan izan gara prefeturara, aireportuak blokatu ditugu... Ingelesetik etorri den *flash mobilization* ikusgarriak eta eraginkorrak biderkatzen ari dira.

Orain arte sektoreko protestetara ohi-tuta geunden: ikasleak, nekazariak...

Kasu honetan mobilizazioa orokorragoa da. Elkartasunik sortu al da herritarren artean?

Erretretak denok hunkitzen gaitu: langileak, langabezia daudenak, ikasleak... orokortasuna hortik heldu da. Aspalditik ez dugu deus irabazi eta elkartasuna piztu da. Oldartun hainbat erakunde, alderdi eta sindikatu dira eta aski elkaturik, jendeak ulertu baitu borroka ez dela bakarrik eramaten ahal eta batasuna behar dela gauzak irabazteko.

Oldartu bezalako kolektiboak protagonismo handia izaten ari zarete.

Hastapenean gibelean egon gara, sindikatuen lana da hori. Baina ikusi dugu ez dutela beren rola betetzen eta horregatik bultzatu dugu dinamika hori Oldartuk eta erretreten aldeko kolektiboak. Sindikatu bakoitzak bere jokia eramaten du, gu ez gara horretan, batasuna eta elkartasuna dira gure *leit motiv*-a.

Legoa jadanik onartua da. Zer egin orain?

CPE ere onartu zen baina gibelarazi zuten. Ez dugu denbora muga bat, sondeoetan ikusi dugu jendea prest dela segitzeko.

Batzuek diote mugimendua behera doala.

Hori Gobernuaren komunikazioa da mugimendua barrutik estutzeko. Guk ikusten dugu gero eta jende gehiago dela karriketan. Tokiko berriak entzunez gauza ez da onera joan, kendu zituzten blokeoak findegietatik baina langileek kamionak blokatzen dituzte orain. Ez da bihar konponduko arazoa.

“barraskilo” operazioen berri ematen duten *tweet*ak iristen dira konputagailura etengabe, *#grevepaysbasque* etiketaren bidez.

“Greba ez da kapritxoa”

Lehenengo hesola ekainaren 24ko greba egunean jarri zuten sindikatu eta kolektiboek. Baionan 10.000 manifestari irten ziren karriketara

eta grebak eragina izan zuen hezkuntzan, saltokietan, La Poste-n eta SNCFn, besteak beste. Frantzia bi milioitik goitik egin zuen erreformaren kontra. François Fillon lehen ministroaren erantzuna: erreforma negoziatu bai, baina ez jasotzen dituen oinarritzko ideiak. Gisa horretan, Gobernuak atea zabaldu zion oporraldiko itzulera beroari;

sindikatuak irailaren 7an jarri zuten hitzordua.

Irailaren 7an, Asanblea Nazionalan diputatuak lege proiektua aztertzen hasi ziren egun berean, alimaleko greba egin zen Estatu osoan eta Gobernuak onartu behar izango du aurrekoak baino mugimendu indartsuagoa izan zela. Baina amore eman ez eta bi egun



Protestak Frantzian, erretretak erreformatzearen kontra.

geroago pentsioen erreformak Asanblea Nazionalaren onarpena izan zuen, UMP eskuindarraren gehiengo absolutuari esker.

Parisetik Biarritzera jardunaldi batzuen karietara etorri ziren UMPko diputatuak ez zituzten elkarretaratuen oihuak entzun ere egin Irati erakustazokatik. Poliziek osatutako giza-alanbrada aurkitu zuten aireportu inguruetan erretretaren aldeko kolektiboko kideek. Irailaren 23a zen eta mobilizazio itzela burutu zen Baionan (15.000 lagun). Sarkozy bi astean bigarren greba orokorra jaso zuen egun horretan –%30eko popularitatea zuelarik, behea jo zuen Frantziako presidentek–: “Ez badu entzuten, mobilizazio gehiago izango dira” zioen CGT sindikatu nagusiko Bernauld Thibault idazkari nagusiak.

Urriaren 2an *derbya* izan zen Jean Dauguer estadioan, txuri-urdienekin ezin izan zuten ezer egin Biarritz Olimpique-ko Yachviliren hankarekin. Baina mele-erdiarena ez zen egun hartan sartutako zigor kolpe bakarra izan. Intersindikalak (CGT, CFDT, CFTC, CFE-CGC, FSU, FO, Solidaires eta Unsa) eta LABek –beste bloke batean bazterturik– deituta 10.500 jendek parte hartu

zuen erretiroa atzeratzearen aurkako manifestaldian, larunbata eta errugbi partida izanik ere. Erreforma onarturik zen arren, inork ez zuen gurdi mandoa hilik ikusten. Oraindik Senatutik igaro behar zuen legeak.

Asanblea Nazionalan ez bezala, UMPk ez du gehiengo osorik Senatuan. Sarkozy zentristen botoak behar zituen legea aitzinera eramateko etxe horretan, eta horretarako agerikoa zen kontzesioak egin beharra zuela. Proiektua Senatuan eztabaidatzen hasi eta bi egun geroago, urriaren 7an, erreforma “biguntzen” zuten aldaketak iragarri zituen Eliseoko apopiloak. Ama izateagatik denbora batez lana utzi behar izan duten emakumeei pentsio osoa kobratzeko baldintzak hobetzen dizkie emendakinak. Baina pentsioen erreformaren pasarte polemikoenak ez zituen ukitu ere egin. Biharamunean, senatariak 5. artikulua onartuko dute –erretreta atzeratzea aurrei-

Vitoria-Gasteiz

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu:

EUSKARAREN ASTEA

Azaroak 29

- **Doltza:** Dultzinea Quixote vs. Teresa Panza antzerki lana. Jesus Ibañez de Matauko antzokia (Hegoalde GE), 20:00
- **Plazatik plazera.** Bertsolariak, payadoreak eta decimistak. Bibat, 20:00
- **Bide ertzean.** Luis Aranburu musika eskola, 19:00
- **35 mm, zinea euskaraz:** *Check point rock*. Florida zinema (5. aretoa), 20:00

Azaroak 30

- **Paradisua, katuak eta abar.** Bernardo Atxagaren irakurketa. Floridako Kultur Etxea, 20:00
- **Plazatik plazera.** Bertsolariak, payadoreak eta decimistak. Parral taberna, 20:30
- **Jon Mantxi: la dena.** Hedoi Etxarte: *Ihes ederra*. Komikiak euskaraz. Zuloa, 19:00
- **35 mm, zinea euskaraz:** *Euskal Herria Jamaika Clash*. Florida zinema (5. aretoa), 20:00

Abenduak 1

- **Esne Beltza.** Kultur Campus, 19:30
- **Gasteiz kantuz.** Ibaiondo gizarte etxeko antzokia, 20:00
- **Patxi Gallego: Pololoak.** Komikiak euskaraz. Zuloa, 19:00
- **35 mm, zinea euskaraz:** *80 egunean*. Florida zinema (5. aretoa), 20:00

Abenduak 2

- **Nora.** Mikel Urdangarin eta Traspasos. Jesus Guridi kontserbatorioa, 20:00
- **Igo gora.** Diziiplina anitzeko ikuskizuna. Gora taberna, 20:00
- **Skasti.** kontzertua. Parral, 21:00
- **35 mm, zinea euskaraz:** *Salda badago*. Florida zinema (5. aretoa), 20:00

Abenduak 3

- **GazteHitz!** kontzertua. Mendizorrotzeko kiroldegia, 18:00etatik aurrera. Betagarri, Gose, Doctor Deseo, Su ta gar...
- **SOK 2".** Kukai dantza taldea. Principal antzokia, 20:30

Abenduak 4

- **Go! mailako sukaldaritza euskaraz.** Kikilisalda kultur elkarte. 12:00
- **Plazatik plazera.** Bertsolariak (Maialen Lujanbio, Andoni Egaña) decimistak eta payadoreak. Jimmy Jazz aretoa, 20:30

Etorri eta gozatu gurekin!




Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Perpetuum mobile?

Adiskide maiteok, 2010. urtean dena dago etengabeko mugimenduan. Dena? Ez. Herritar euskaldun, okzitaniar, bretainiar, korsikar eta galiar batzuek buru egin diote kapitalismo globalaren axioma horri eta grebaren bitartez estatua gelditzeko zorian utzi dute. Erretreten erreformaren kontrako ekimenak mugikortasunean izan duen eragina harrigarria da eta begibistan jarri du sistemak ez daukala gauza batzuei aurre egiteko adina zain.

“Sare bakoitzak gune ahulak ditu; korapiloak, desegite hutsarekin zirkulazioa gelditzen dutenak, ehundura barrutik lehertuz. Europako azken matxura elektriko handiak erakutsi du: nahikoa izango zen istripu bat tentsio altuko linean, kontinentearen zati handi bat ilunpean uzteko. Metropoli erdian zerbait altxatzeko, beste aukerak zabaltzeko egin behar den lehenengo keinua haren perpetuum mobilea gelditzea da”. Komite Ikustezinaren *Datorren matxinada* liburutik hartutako hitzak dira (jatorrizkoa Galian *L'Insurrection*



qui vient; Hispanian *La insurrección que viene*) eta primeran datoz aurtengo urrian gertatu dena ulertzeko. Mugikortasuna erdigunean jartze horrek diferentzia argia zedarritzen baitu, produkzioa lehenesten zuen kapitalismotik gaur egungo kontsumo eredu globalera dagoena, hain zuzen.

Garrantzitsua da hori, mobilizazioak nola egin pentsatzeko: produkzio guneak gelditu ordez, energia-hornikuntza guneak eta garraiobideak bihurtzen dira grebaren helburu nagusi. Lortu birfindegiak ixtea, errepideak buxatu, aireportuak gelditu... gainontzekoa bakarrik etorriko da. Christine Lagarde Frantziako Finantza Ministro-

ak eman zuen joan den astean desastrearen tamaina: 200 eta 400 milioi euro arteko galerak izan ditu estatuek greba egun bakoitzeko. Eta horrek, mobilizatutako jende kopurua gorabehera, min ematen du.

Gorka Bereziartua

kusten duena— eta erreskadan 6. artikulua eztabaidatzen hasiko dira —pentsio osoa kobratzeko 67 urte edukitzea agintzen duena—.

Jack Ralite komunista zaharrak ezin hobeki deskribatu zuen herri-tarrek karrikan zuten sentsazioa: “Uste duzue indarrez pasa zaitezketela” bota zien UMPko aukietako-ei, “greba ez da kapritxoal”. Inkes-ten arabera, herritarren %71k begi-onez ikusten zituen protesta mugimenduak. Gauzak horrela, jadanik greba mugagabearen hautsak arrotzen hasiko dira sindikatu zenbaitzuk, efektiboagoa delakoan.

Ekonomia blokeatzeko estrategia

Laugarrenez, Frantziako Estatu osoan grebara eta mobilizaziora deitu zuten sindikatuek urriaren 12rako. Baionan 17.000 pertsona karrikaratu ziren. Frantziako hiri nagusietan, berriz, hiru milioi lagun-ek esango diote Sarkozyri gibelera egiteko. Baina egun hartan hainbat eskalafoi egin zuen gora pentsioen erreformaren kontrako mugimenduak. Alde batetik, lehenbizikoz ikasleek ere hartu zuten parte borroka horretan; bestetik, hainbat enpresa eta zerbitzutan greba berriztagarriei ekin zieten —24

orduz behin bozkutzen dute langileek lanera itzuli ala ez—.

Senatuan erreforma erabat onartzeko eguna hurbildu ahala ezine-gona *in crescendo* joan zen. Ikasleek lizeoak blokatu eta manifestaldiak egingo dituzte, “Sarko lekuak huts!” egiten zuten oihi milaka gaztek Baionako Lan Burtsa inguruan. Ipar Euskal Herriko 15 lizeotatik erdia itxiarazi egin zituzten eta horietako askotan ikasleek kanporatze mehatxuak eta presioak jasan zituztela salatu zuten Ikasi eta Irauli plataformako ordezkariak. Frantziako 4.000 ikastetxeetatik ia laur-

Grevepaysbasque.eklablog.com gunean paratutako hainbat irudi, ezker-eskuin: Autokarabana Biarritzeko aireportura bidean; piketeak Hendaiaiko industriagunea blokeatzen; erretretak kudeatzeko Crama enpresa okupatuta.



den bat ere itxita egon zen hainbat egunez. Agentziako argazkilari batek Pariseko Senatu aurrean harrapatutako irudian “*No future mais retraite!*” (Erretiroaren ondoren etorkizunik ez!) irakur daiteke, gazte batek eskuetan duen kartoian.

Grebalariak Estatua “ekonomikoki blokeatzeko” sektore estrategikoetan jarri dituzte indarrak, bereziki petrolioaren horniduran. Urriaren erdialdean Frantziako 12 findegiak greban ziren eta polizia deusitoak desblokatu ahal blokatzen zituzten berriz ere piketeek. Marseillako Fos-Lavera portuak ere –Europako hirugarren handiena– trabaturik daramatza hainbat aste eta hamarnaka petrolio-ontzi ezin sarturik dabilta. Egunik kritikoetan 4.000 gasolindegia inguru karburante gabe zeuden Gobernuaren kalkuluen arabera. Bestalde, hegaldiak eta garraio sareak erruz igartzen ari dira protesten eragina, baita Lapurdin ere. Esaterako, A-63 autobideko eta Baionako portuko trafikoa oztopatu zituzten hainbat aldiz sindikatu eta plataformek, bai eta okupazioak burutu ere enpresa esanguratsutan –Oldartuko eta erretreten aldeko kolektiboko kideak erretiroak gestioatzeaz arduratzen den Crama erakundearen Baionako egoitzan sartu ziren–.

Urriaren 19an inoiz Lapurdiko hiriburuan ikusi den manifestaldirik handiena egin zen: 19.000 lagunek hartu zuten parte Senatuko deliberoaren presionatzeko asmoz. Protestak beste herri batzuetan ere sumatuko dira, Donapaleun eta Donibane Garazin kasu. Frantziako hegaldien %50 bertan behera gertatu da egun horretan eta tren lasterren ibilia motela izango da.

Nicolas Sarkozy presidenteak, Lyon eta Nanterren ikasleekin izandako istiluak erabili zituen diskurtso gogor batez mugimenduari erasotzeko: “Bandaloek ez dute azken hitza” zioen *Sarkok*. Horrez gain, findegiak eta deusitoak indarrez desblokeatzeko agindua eman zuen. Paris osoa hornitzen duen Grandpuits-eko findegia izan zen polizia asaltatzen lehena, urriaren 21ean. Azkenean, ia hiru asteko eztabaidaren ondoren, urriaren

Hemeroteka

“Belaunaldien arteko elkertasunean oinarritutako erretreten sistemak bizitzeko modu bat adierazten du, ‘norbera bakoitzarentzat’ inperioarekin bateragarria ez dena. Aberatsak beren ezkutu fiskalaren babesean bizi diren inperioa da, eta bitartean soldatadun masak denbora gehiagoz egin beharko luke lan bere erretreta murriztuta ez ikusteko eta pobreziaren zuloan ez erortzeko”.

Jean-Paul Pierot
(*L'Humanité*, 2010eko urriaren 16a)

“Aipatzen digute erretreten sistema salbatzekoa dela, baina aldaketaz aldaketa azkenean gure belaunaldiei eta ondokoei adin onargarri batean erretiratzeko ahalmena bera zaigu ukatzen. Uste dut erreformak helburu bikoitza duela: bat, kapitalizaziozko erretreta eskaintzen duten enpresa pribatuei bidearen irekitzea –buruzagi gehienak lehendakariaren adiskideak dira– eta bi, orain arte banaketaz eta dretxo ezberdinez azpaturiko lan munduaren erraustea. Badu hogeitaz urte lanaren kalterako gerra isila deklaratu dutela neoliberalak”.

Itxaro Borda
(*ARGIA*, 2249. zk.)

“Joan den urriaren 7an bigarren hezkuntzako ikasle manifestari batek bere borrokaren zentzua azaltzen zuen: ‘Lehenengo hezkuntza da, eskola. Gero lana, gogorra. Eta gero erretreta, saria. Saria kentzen badigute, zer geratzen zaigu?’ Liberalek harrigarriro beren erretretaz arduratuta dau-den gazte horiez ironizatzen dute”.

Serge Halimi
(*Le Monde Diplomatique*, 2010eko azaroa)

“Zuzentasun eza. Hau da gero eta gehiagotan entzuten den oharra. Erreforma honek ez du justiziarik ekartzen. Injustua da. Gehiengo handiak argi ikusten du. Ikusten du, frantses Estatuan, aberatsen aldeko politika inongo lotsarik gabe eramana dela”.

Ixabel Etxeberria
(*Kazeta.info*, 2010eko urriaren 19a)

22an pentsioen erreforma onartu zuten Senatuan: 173 boto alde eta 153 kontra.

**Gobernuak mugimendua
“desinflatzen” ari dela dio.
“Deus ez da fini” dio LABek
bidalitako prentsa oharra**

Legea onartu delarik, Gobernuak mugimendua “desinflatzen” ari den mezua zabaltzen du –urriaren 28ko greba eta mobilizazio egunak aurrekoek baino indar gutxiago izan du, hein handi batean ikasleen oporraldiak desbirtuaturik–. Ez bide da hori eragilean iritzia. “Deus ez da fini” dio Donapaleuko LABek e-postaz igorritako oharra: “Grebak

sektore desberdinetan segitzen du (...) egunero eta leku guztietan ekin-tzak burutzen ari dira”.

Momentu honetan kolektibo eta sindikatuek perturbazioak azkartzeko lanean dihardute. Oldartuk Baionako suprefetura okupatu zuen joan den astean eta Facebook-eko aktualizazio berrienek jendarmekin izandako tira-birez hitz egiten dute. Adrien Kempf hazpandarrak, *Greve solidaire* webgunean milaka euroko laguntza bildu du herritarrengandik, mugimenduekin jarraitu eta grebak finantzatzeko. Reuters-en azken orduko mezuak Fos-Laverako langileek greban jarraituko dutela dio. Irakurleak artikulu hau irakurriko duenerako begirada guztiak azaroaren 6ko mobilizazio egunean izango dira. ■

Euskal Girotze Barnetegiak

Ikasleen barrunbeak arakatzen

Astebetez jolas giroan euskaraz bizitzeko aukera. Horixe da Euskal Girotze Barnetegien eskaintza. Mende laurdena igaro berri da lehen esperientziatik, egitasmoaren beharra dagoen seinale.

SAIOA LABAKA

Argazkiak: E. G. B.



Ikasleek astebete igarotzen dute barnetegian. Helburua haurrek euskara gehiago erabiltzea da, eta horretarako, gaur egungo metodologian ikaslea bera da erdigunea, alegia, hiztunak hizkuntzarekiko duen harremana arakatzen saiatzen dira monitoreak.

ETXEKO ETA KALEKO erdal giroan bizi diren ikasleen euskararen erabilera eta haren aldeko motibazioa indartzeko prozesuak antolatzea da barnetegien helburu nagusia. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak sortu zituen Euskal Girotze Barnetegiak orain 25 urte, NOLEGA (Euskararen Normalizazio Legearen Garapena) programaren baitan. 1985-86 ikasurtean antolatuta zen lehendabiziko barnetegia Euban (Bizkaia). Gaur egun, bost barnetegi daude martxan: Alkizako Erretore Etxean, Elgoibarko Aubixa baserrian, eta

Segura, Barria eta Urduñako aterpetxeetan. Iñaki Iturain koordinatzailearekin izan gara solasean egitasmoaren nondik norakoak ezagutzeko.

Eskolentzako laguntza-zerbitzu modura sortu ziren barnetegiak; ikasleek nahitaezko ikastaldiak amaitzerako bi hizkuntza ofizialak ezagutu beharraren testuinguruan.

Norabide berria

Azken urteetako hausnarketen ondorioz norabide berria hartu dute lan metodologiari dagokionez. Astebeteko epean, eta eginda-

ko neurketen arabera, haurren arteko euskararen erabilera areagotu egiten zen, astelehenetik ostiralera. Baina epe laburreko bilakaera zen han gertatzen zena, eskolara itzuli eta euskaraz egiteko amuak eta testuingurua desagertuta, erabilera berriro jaitsi egiten zen.

Lan egiteko ikuspegiaren erdian erabilera zuten, euren jardunen ardatza zen. Egun, barnetegietako jardunaren erdigunean erabileraren orde, pertsona jarri dute; hizkuntzaren aurrean, hiztuna. Motibazioa da garrantzitsuenak. "Gaur egun, 'Euskaraz egin behar duzu!'

A, B eta D eredueta ikasleak

Euskal Giroitze Barnetegietarako eskaera gehien Bizkaitik egiten dira. Bost eguneko egonaldiak izaten dira, astelehenetik ostiralera, eta ikasgela bateko ikasle-talde osoa joaten da bertara, irakaslearekin batera. Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik Derri gorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila arteko ikasleak biltzen dira barnetegietan; 8-13 urte bitarteko haurrak. Egonaldi-txandak ikasturte barruan egiten dira. 2010-2011 ikasturteko egonaldiak irailean hasi ziren eta ekainean amaituko dira. 28 txanda egingo dira aurren barnetegi bakoitzean; 140 orotara. A, B eta D eredueta ikastetxeetako haurrak izaten dituzte. Inaki Iturain barnetegietako koordinatzaileak

adierazi digunez, barnetegietara doazen D ereduko ikasleak ere, erabileraren inguruko bultzadaren beharrean daude. Aurren, beste batzuetan bezala, txandarik gabe geratu diren ikastetxeak izan dituztela gaineratu digu.

Barnetegiak abian jarri zirenetik, 70.000 haur pasa dira, 3.000 txanda antolatu dituzte, eta 5.000tik gora izan dira bertaratutako taldeak eta irakasleak. 25 urte hauetan euskararen erabilera handitzeko, ikasleak motibatzen eta girotzen ibili dira monitoreak. Denboraren joan-etorrian, barnetegietatik ikasle moduan pasatako batzuk, irakasle gisa ere bueltatu dira eta bakarren bat monitore gisa ere bai.

eta horrelakoak esatea alferrik da. Errietek eta zigorrak ez dute lekurik barnetegietako lan jardunean. Haurrak berak nahi duelako hitz egingo du euskaraz eta guk bideratu behar dugu horretara. Alferrik da hori behartuz lortzea”, esan digu Iturainek.

Egitasmoaren arduradunek haurraren identitatean arakatzea beharrezkoa dela ikusten dute: haurra zein inguruetan bizi den ezagutzeko, nola bizi dituen hizkuntzak jakitea, zergatik aukeratzen duen bata edo bestea... Haurraren identitateari iristeko ahalegina egin behar delakoan daude. Emozioak, sentimenduak, baloreak eta usteak era kontzienteagoan eta planifikatuan lantzea litzateke kontua. Barnetegietan haurrek ondo pasatzeko, dibertitzeko eta gozatzeko, eskola kutsurik gabeko jardunak izaten dituzte eta ekintza horietan haurrak hizkuntzen inguruan hausnartzea lortu nahi da. Haur batzuegan ereiten da hizkuntza beste begi batzuekin ikusteko hazia, eta horrek epe luzeagoan fruituak emango dituelakoan daude.

Barnetegi guztiek metodologia bera darabilte, baina bakoitzaren aukeren arabera izaten da aste-beteko programa. Alkizako barnetegian Lehen Hezkuntzako 3. 4. eta 5. mailetako haurrak izaten dituzte. Esaterako, barnetegi horretan ondoko ekintzak burutzen dituzte, besteak beste: jolas kooperatiboak, animalien jolasak, ipuin tailerrak, zaldi gainean ibili, abestien cd-ak

prestatu, herria ezagutu eta mendi irteerak.

Jarraipena irakasleen esku

Taldearekin batera bertaratzen diren irakasleentzat ere prestakuntza gune izaten dira barnetegiak. Hizkuntzaren erabilera bultzatzeko landu eta probatu dituzten metodologia eta baliabideak eskaintzea eta gai honen inguruan laguntza eta aholkua ematea ere Euskal Giroitze

“Errietek eta zigorrak ez dute lekurik barnetegietako lan jardunean. Haurrak berak nahi duelako hitz egingo du euskaraz eta guk bideratu behar dugu horretara”

**INAKI ITURAIN,
BARNETEGIETAKO KOORDINATZAILEA**

Barnetegien xedeak dira. Barnetegietan landutakoa eskoletara eramateko aukera daukate irakasleek. Hori dela eta, irakaslearen jarrera funtsezkoa da landutakoari zukua ateratzeko. Hainbat ikastetxek urtero egiten dute barnetegietara joateko eskaera, horien kasuan taldeen bilakaera gertutik jarraitzeko aukera dago, irakasleak ezagutzen dituztelako. Baina, oro har, egonaldia amaitu ondoren, ez da ikasleen jarraipen sistematikorik egiten.

Gurasoek ere izaten dute aukera haurrek barnetegietan egindakoa

ezagutzeko. Egonaldia amaitzen denean, ikasle bakoitzak CD bat eramaten du etxera. Bertan, astean zehar egindako ekintzen argazkiak eta bideoak egoten dira. Gurasoek haurrekin batera ikusi ohi dituzte CDak, esperientziaren berri zuzenean jasoz. Monitoreek gurasoentzako mezuak ere grabatzen dituzte; egonaldian egindako lanak jarraipena izatea, hein batean, euren esku dagoela adieraziz. Urteak joan ahala, haurrek ere hor izango dute oroigarria noiznahi begiratzeko eta nahi izanez gero hausnarketarekin ere jarraitzeko. Inaki Iturainen iritziz, gurasoek egonaldien inguruan egiten dituzten ebaluazioak fidagarriak izaten dira eta, oro har, balorazio onak egiten dituzte. Alde bateatik, haurrek oso ondo pasatzen dutela ikusten dute, eta hainbatetan gurasoak harrituta geratzen dira haurrek eurei euskaraz egiten dietenean. Nolabaiteko jarrera aldaketa sumatzen dute. ■

SOLOZABAL

*Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako*

■ IKASTARO INTENTSIBOAK
■ CAP IKASTAROAK
■ ADR IKASTAROAK
■ GARRAIOLARIEN LANBIDE-
TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Merkatari erdaldunari euskaraz Zumaian

ZUMAIKO UDALAK inkesta egin du herriko kontsumitzaileek erosterakoan zein hizkuntzatan aritu nahi duten jakiteko eta gehiengoak euskaraz nahi duela erantzun du. Ondorioz, merkatarientzako kanpaina egin dute. Bi mezu nabarmentzen dira: batetik, merkatariei lehen hitza euskaraz egitea eskatzen zaie, alegia, bezeroari argi uztea euskaraz badakiela. Bestetik, nahiz eta euskaraz oso gutxi egin edo batere ez, ulertzen baldin badu, bezeroari euskaraz segitzeko aukera ematea aholkatzen die. Gero eta gehiago aipatzen den elebitasun pasiboaren adibideetako bat

da. Merkatariei arraroa egingo zaie bezeroa euskaraz egitera animatzea, beraiek gutxi jakinda, baina euskaraz aritu nahi duen bezeroari ere kostako zaio gaztelaniaz ari zaionari euskaraz egitea. Praktikak esango du.

Tolosar gazteen ahozketasuna aztergai

EUSKO JAURLARITZAK, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosako Udalak babestutako egitasmoa da, Mintzolak gidatuko duena. Lau urteko esperientzia pilotua izango da eta Tolosako hiru ikastetxetako –Hirukide Eskola-pioak, Orixe Institutuko DBH eta Laskorain Ikastola– ikasleen euskarazko ahozko jarduna aztertuko dute.

Donibane-Lohizuneko gau eskolak 30 urte

DONIBANE-LOHIZUNEN gau eskola ofiziala 1980. urtean abiatu zen, nahiz eta 1968az geroztik eskolak ematen aritu ziren. 30 urte egin ditu gau eskolak eta Ipar Euskal Herriko lehena izan zen. Joan den asteburuan, hilak 31, ospatu zuten urteurrena.

Lanerako hiztegia

ELHUYAR eta Lanekiren elkarlanari esker argitaratu da eta jakinbai.com webgunean zintzilikatu dute 5.641 kontzeptu biltzen dituen lan mundurako hiztegia.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Kapital iheslariei mozorroa kendu

Espainiako Ogasunak “kontuak” eskatu dizkie Suitzan diru beltza duten 3.000 titularrei. Ikerketa hasi dutela diote, eta segurtatu duteenez, soilik Suitzako banku bakarrean, HSBCn, kopuruak 6.000 milioi euro gainditzen ditu. Ogasun horrek susmoa du kasu gehienetan delitu fiskala dagoela. Delitu fiskal gisa kontsideratua izateko beharrezkoa da kontuetan dagoen kapitalak 120.000 euro gainditzea. 3.000 kontu “opako” horietatik, jakina da Gipuzkoa eta Bizkaiko ogasunetara 89 eta 64ren zerrenda iritsi zaiela, hurrenez hurren, bertan tributatzen dutelako. Pentsatzekoa da Euskal Herriko gainerako ogasunetara ere dagokien zerrendak iritsi direla.

Administrazioak nahiko zuhurrak izaten dira horrelako gaietan. Tentazioa izaten dute negoziatzeko: dirua erregularizatu zigorrak kentzearen truke. Nahiz eta bide horretatik ez direla ari dioten, amnistia fiskalaren bidetik alegia, praktikan, hori da Espainiako eta Euskal Herriko ogasunek hartzen duten neurria. Baina politika gogorrago eta intransigenteagoa behar da. Adituek kalkulatzeko paradisu fiskaletan 6 bilioi dolar (4,6 bilioi euro) daudela. 185.000 milioi euro Espainiako Estatuko fortunei dagokie. Diru horrekin gaur egun jasaten ditugun “doikuntza” arazoetako asko konponduko lirateke. Lakra hau eragotzi nahi bada, izen-abizenekin mozorroa kendu beharko litzaieke kapital iheslariei. Herritarrek ezagutu ditzatela. Seguruena, horien artean topatuko ditugu doikuntza fiskala, lan eta pentsio erreformak, BEZaren igoera, IRPFaren moldaketa, osasun zerbitzuak ordaintzea eta abar, defendatzen dituzten asko. Langile, pentsiodun eta langabetuei odola zurrupatzen dienak dira. Lapur lepazuridunak dira.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Malores Etxeberriak gipuzkoaceus-kara.net-en Enric Larreularen *Dolor de Lengua* liburua izan du hizpide. Liburua hizkuntza gutxituetako hiztunek sentitzen dituzten min mota askotarikoez ari da: “Oso gutxi aztertutako gaia dela dio Larreulak, baina ondorio inportanteak dituen sufrimendua noztzen ari diren pertsonengan. Eta, zer esanik ez gizartean, elkarbizitza zailtzen duelako. Hizkuntzaren etorkizunaz kezkatuta dauden pertsonak disimulatu egiten dutela dio, ez dutela gaiaz hitz egiten edota hitz egiten dutenean, gezurra esaten dutela, batik bat erdal hiztunen aurrean. Gezurra, besteak gehiago direlako, ez dutelako gai honetan haienganako konfiantzarik, barneko emozioak direlako, ez dutelako bizilaguna mindu nahi... Isiltasun hori oso kaltegarria dela eta itxurazko elebitasun egoerak hizkuntza gutxitua sozialki desagertzera darabala gaineratzen du Larreulak.

Hizkuntza sozialki erabilgarria izango bada –sozialki erabilgarria izatea hartzen du hizkuntzaren ‘salbaziotzat’–, gaiaz asko hitz egin behar dela dio, asko, zintzoki eta denok, bateko zein besteko hiztunok”.

ETA-ren baietzaren zain

EZKER ABERTZALEA

hauteskundeetara nola aurkeztu ahal izango den, hori da gakoaren iltzea orain. Duela oso gutxira arte, bazirudien datorren maiatzerako ez zela posible izango, eta orain ordea, kontrakoa dirudi. Arnaldo Otegiaren *El Pais*-eko elkarriketa-rekin hasi zen PSOEren irudi biraketa eta honek irekitze bidean jarraitzen du.

Ohi moduan, Madril-en ekin zaio irekiera bidaia horri, eta arazoaren itxiera Moncloak eta Ferrazek bideratuko dute. Hala izan da estatu arazo guztietan. Horixe ikusi genuen 2006ko bake prozesuan, ikusi dugu orain Estatutuaren eskumenekin EAJk eta PSOEk egindako negoziazioan eta berdin ikusten ari gara bake prozesu honetan ere.

Moncloak bere urratsa taularatu ondoren, ETak Bruselako Adierazpena onartzen duela adierazi behar luke. Iraileko su-eten iragarpean moduan, orain ere azarorako iragartzen da erakunde armatuaren onarpen hori. Halako filtrazio handien historiak edozertarako funtsa ematen du, baina bi bake prozesu hauetako mugimendu handienetan, su-eten iragarpenak bete egin dira. 2005eko urte bukaeran, esaterako, ETaren su-etena bazetorrela aipatzen zen indarrez eta kosta bazi-tzaion ere, 2006ko martxoan gauzatu zen. Aurtengo abuztuaren bukaeran ere berdintsu gertatu zen, eta ETak bere isileko su-etena publiko egin zuen. Hedabideren batzuek ETaren erantzuna azaroren 10a baino lehenago emango dela aurreratu dute jada.

Hala gertatzen bada, aurrerapauso itzela litzateke eta hautes-



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

kundeetarako lasterketaren ateak parez pare irekita geratuko lirateke. Denak adierazten du antzerki gisa-bat biziko dugula gai honetan. Hau da, nola egingo du Espainiako Gobernuak ezker abertzaleari ate irekitzeko, baina aldi berean Espainian tinkotasun irudia salduz? Bada beti egiten duen gisan, noizean behin azenarioa erakutsiz eta gehiagotan egurra banatuz. Orain arteko hariari jarraituz, beraz, eta zoritxarrez, Segirena moduko polizia-operazio gehiago etorriko direla pentsa liteke.

HAUTESKUNDEAK ez dira prozesu honen helburu nagusia, ezker abertzaleak argi utzi du hori eta begi bistakoa da. Mende erdiko zikloa ixtea, hori da erdietsi nahi duena, aldi berean, pilatutako kapital politikoa aro soberanista berriaren zerbizura jarritz. Baina bide horretan, datozen hauteskundeetan egotea giltzarri da beretzat eta egin beharrekoak eta bi egingo ditu hala izan dadin.

Behin ETak Bruselako Adierazpena onartuta, ezker abertzaleari ere samurrago egingo litzaioke PSOEk eta Espainiako iritziz publikoak irentsi dezakeen formularen bat erabiltzea. Gobernuak, bere alde-

tik, tresna garrantzitsuak ditu hautagaitzen ateak ireki eta ixteko, besteak beste fiskaltza nagusia eta estatuaren abokatua. Espainiako Gobernuak ez badu nahi, ez dago Auzitegi Konstituzionaleko ate irekiko duen giltzarrik; Gobernuak nahi izanda, ezker abertzalea pasatu-ko da.

Agian ate guztiak irekitzen dira eta ezker abertzaleak, beste edo-

zeinek moduan, parte har dezake eta listo. Baina ez dirudi, hori errazago gertatuko da 2012an (Espainiako orokorrak) eta 2013an (Eusko Legebiltzarra). Oraingoan logikoagoa dirudi ate bat zabaltzea eta beste bat ixtea. Herrietako zerrendei ateak zabaltu, esaterako, eta diputazioa eta Nafarroako Gobernuak ateak itxi. Hori izan zen gutxi gorabehera 2007ko formula. Diputazioen aukera itxiz gero, ezker abertzaleak beti izango du horietarako botoa beste norbaitentzat eskatzea. Nafarroan berdin, nahiz eta botoa NaBarentzat eskatzea ez litzatekeen horren samurra. Kasu horretan, kontrako kanpainarik ez egitea ere nahikoa litzateke.

Ezker abertzalearentzat herrietan egotea da garrantzitsuena oraingoan, udaletatik etorkizunerako erronkei aurre egiteko zorua duelako. Zapateroren Gobernuarentzat, aldiz, Espainian ezker abertzaleko marka argi baten debekua ikus araztea izan liteke garrantzitsuena. Borondatearekin ateak irekitzen jarraitu dezakete, bestela jai, dena izango da aski korapilatsua-goa. Baina lehenago edo geroago urtegia irekiko da, eta bitartean, ezker abertzaleak sendotzen jarraitzeko aukera handia du.

PELLO ZUBIRIA

Erretretak: sua langile eskubideen azken barrikadan

Kolpetik, hiru urtetan, Europako langileria pasatu da asteko 35 orduko lanaldia aldarrikatzetik 60 urteko borroken poderioz ukiezinak ziruditen eskubideak galtzeko zorian edukitzera. Jubilazioak dira horren eredu. Finantzen krisia gainditzeko estatuek inprobisatu politikei aurre egiteko indarririk ez bide dago, salbu eta Frantzia zaharrear.

FRANTZIAK 1968KO MAIATZETIK hona ikusi duen greba eta mobilizazio uholde handienaz zer esan dezake kazetari euskaldun-espainiarrak? 2020ko albistegietan “Orain dela 10 urte...” tituluarekin oroituko direla jakinagatik, zail egiten zaio ongi ulertzea zer dela eta mobilizatu diren hainbesteraino Hexagonoan are atzerakada minberagoak nozitu behar dituzten Ingalaterran edo Espainian baino.

Hego Euskal Herrian eta oro har Espainian iritzi emaile nagusiak, izan ezkerreko edo batik bat eskuinteko, ortodoxia neoliberalari jarraitzen zaizkio analisisetan.

Antton Perez Calleja bat honela trufatu da Frantziako langileen mobilizazioez: “Asko ari naiz dibertitzen Frantziar jubilazioak direla eta gertatzen ari denarekin. Oraingoa ez da txintxoaren eta gaiztoen arteko borroka, non herria oldartzen baita gaizkia absolutuaren kontra, kapitalismo zurgatzailearen aurka. Honetan ez da berdin. Sistemaren administratzailea, Estatua, ari da abisatzen ikaratuta kontuak ez direla ateratzen. Aktiboei eskatzen die lan gehiago egiteko, pasiboei gutxiago kobratzeko. Ekua-zioa orekatu behar dela”.

Ezkerreko irakurketak askoz ugariagoak izan dira Frantzian. Kaleetako matxinada justifikatu edo esplikatzen duten iritzi emaileen artean bat

aukeratzekotan, *Le Monde Diplomatique*ren blogen atalean *La pompe à phynance* (Finantzazko punpa esanenezake euskaraz) animatzen duen Frédéric Lordon-ek “Erretreten urtze puntua” izeneko artikulua plazaratu du. Luzea, konplikatu, baina argudio sendoz argitzen duena langile askok aspalditik susmatua: urte luzetako iruzurretan azkena eta agian garrantzitsuena dela jubilazioekin agintariek antolatu dutena.

Araugabetze politika ikaragarri baten barruan, dio Lordonek, Gobernuak bi komunitate oso ezberdini mintzo zaio. Batetik dago nazioa osatzen duten herritarren komunitatea eta bestetik dago mundu mailako finantzek osatzen dutena. Eta bere arbitro lanetan, Estatuak “bigarren indar hauei ematen die arrazoi lehenengoaren kontra”.

Horra finantzen globalizazioak ekarri duen egoera berria: “Uste genuen herri burujabea zela Estatuaren komunitate erreferentzia bakarra (...) baina ikusi dugu agintariek ez dutela manatzen zilegitasuna eman dieten herritarren alde, beste batzuen alde baizik”. Hots, mundu mailako “merkatuek” ez diezaizoten Estatuaren zorrari AAA kategoria kendu (“*la retraite contre la triple A*” laburbiltzen du Lordonek) herritarren jubilazioak aldatu behar omen dira, gainera berehala.

Fermin Goiriz bati hartu diogu irudia *Pantín es distinto* blogetik. Alderdi Obrero Indpendentearen afixek “Ez hunki gure erretretak!” diote lau hizkuntzetan idatzita. “Frantzia, Grezia, Espainia, Portugal... aldarrikapen bera” ipini diote aurretik, nahiz eta begi bistakoa den Grezian eta Frantzian bai izan direla mobilizazio gogorrek erreforma ultraliberalak gelditzeko helburuz, baina ez dela berdin gertatu orain arte Espainian eta Portugalen. Agian urrunegi iritsi da Nicolas Sarkozy bere planetan? “Erretretena gerta dakioke –idatzi du Frédéric Lordonek– gehiegizko urratsa, agian pilatu zaizkio erreforma lotsagabearekiko jendearen arbuioa, finantzen munduak erakutsi espektakuluarekiko nazka izugarria, ez kapitalismoaren beraren baina bai gaur dauzkan formen kontrako protesta eta bizimodu baten defentsa”. Hitz jokoa eginez, Frantziak erreforma baino iraultza behar duela.

Frantziako legebiltzarrak erreforma bat onartu du publikoki, baina itxurazko aldaketaren azpian mudantza askoz sakonago bat ari da gertatzen. Alegia, frantsesez *retraite par capitalisation* eta gaztelaniaz *capitalización individual de pensiones* deitzen dena. Azken hamarkadotan denetan zabaldu den sistema da, neurri txikiagoan edo handiagoan diru publikotik kobratu behar den jubilazioa osatzekotan.

Oraindik gure artean ezkerreko jende askok ere aitzinamendutzat dauzkaten pentsio sistemok, Lordonen iritzian, langileak preso uzten dituzte aurrezkiok kudeatzen dituztenen besoetan. Aurretik, pentsio sistema publikoa hondatzen utzi dute, lehenago trenbideak, posta, osasun edo laguntza zerbitzuak, eta abar luze bat hondatzen utzi eta pribatizatu osten.

Zahartzaroko gure sosak

Zerbitzu sozialen helburua zenez herrialde bateko aberastasuna, eta ondorioz ongizatea, hein batean banatzea, pribatizazioak hankaz gora bota du urteotan lorpen hori, klaseen arteko leizea sakonagotuz.

Ongizate estatua eraisteko lanean jendeen psikologiarekin jokatu dute “erreformatzaileek”. Indibidualismoarekin, alegia. “Denak nor berea zaintzen, bakoitza bere kalkuluetan



diren zurrumurruek zenbat ez dute lagundu pentsio pribatuak orokortzeko xedea? Orogen buru, propaganda pagatzen duten mutualitate eta abarrek –finantza sistemaren zati direnek– beti kobratuko dituzte beren komisiok, pentsio funtsak irabazi ala galdu.

Horrelako aurrezki planetan harrapatuta langileak zail dauka finantza sistemari hortzak erakusten. Bestalde, mundu osoan ugaritu diren berregituratze operazioetako askotan horrelako funtsak dabilta inbertsioak egiten... eta milaka langile kale gorrian uzten. Ustez langileak jabe dituzten funtsak auzo herrian beste beharginak mixeriara jaurtikitzen.

Sistema berriak preso hartutako beharginen erreakzioak aurrikusteko beste termometro bat berrikitan BP petrolio konpainiak Mexikoko golkoan eragin kutsaduraren ondorengoa izan da. Garbiketa lanak eta indemnizazioak oso garesti aterako direnez, BPren akzioek sekulako beherakada nozitu zuten Londresko burtsan, non Footsie indizearen oinarrietako bat den. Britainia Handiko milioika pentsiodun eta jubilatugai larri bezain haserre ibili dira hilabeteotan, aurrezkiak nola galtzen zituzten ikusirik.

Orogen buru, plangintza honekin Frantziako eta hein batean Europa aberatseko nortasun agirieta bat jarri da auzitan: erretreterekin belau-naldien arteko solidaritatea eta sortutako irabazien zati bat zahartzarozan berriz banatzea baimentzen zuena. Bankariek izugarri gogortu dituzte langileen bizi baldintzak. Berdina lortzear dira zaharrekin. ■

murgildurik, ez daukalarik sistemari amore ematea beste aukerarik, bakoitzak onartzen du eskueran jartzen diona”. Pentsio plan pribatu-ekin horixe gertatu zaio edonori, Lordonentzako: miseria zko jubilazioa iragarri zaionez, sarritan bere printzipioak irentsi eta txanpon batzuk sartu ditu edozein pentsio planetan.

Aldiz, orain hemen ezarri nahi den sistema pribatuaren emaitza negargarriak ikusita daude Estatu Batuetan. Lordonek aipatzen ditu National Bureau of Economic Research erakunde publikoarentzako Robert Novy-Marxek eta Joshua Rauhk egin ikerketaren emaitzak. Haiek erakutsi bide dute AEBetako pentsio funts gehienek, publikoek barne, dirua galdu dutela urteotan.

Pentsio funtsak nondik edo handik etekina atera nahian apostu arriskutsuak egin dituztenez, burbuila guztien ezta dikan jasan dituzte, hasi Internetekoarenetik eta *subprimeen* hondoratzeak zapartatu zueneraino. Baina finantzen munduko espekulazio zirimolan harrapatuta, funts horiek ordaindutako *lobby*ek presio egin dute Washingtonen, eta azkenean Obama presidentek berak indarrik gabe utzi du George Bushen agintean, 2006an, pentsioen ahalmena bermatzeko erabakitako legea.

Ondorioz, dio Lordonek, “iragarritako dago AEBetako langile askok ez duela beste aukerarik izango Matusalenen urteak bete arte (ahal badu, noski) lanean jarraitzea baino”.

Urteotan erretreterez zabaldu



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Kike Diez de Ultzurrun Sagala

Batzarre

ETaren balizko desagerpenak sekulako eragina izanen du arlo aunitzetan; besteak beste, mapa politikoan, jakina. Egia erran, sekulako eragina izaten ari da. Bertzenaz, begira gauzak nola dauden Nafarroa Bain. Azkenaurreko albistea izan da Batzarre ez dela hurrengo hauteskundeetan NaBai barruan egonen eta, azkena, IUekin batera aurkeztuko dela. Edo hala ematen du, behintzat. Baina, azken erabakia ez omen dago hartua; hau da, Batzarreko kideak herriz herri eztabaidatzen ari dira eta batzar nagusi bat edo bi eginen dituzte azaroaren erdialdean (bata Iruñean, eta beste, Tuteran), zer egin erabakitzeko. Indarrak nola dauden ezin erran, baina egunotako barne bileretan denetarik iritziak entzuten dira. Zuzendaritzak, bere aldetik, dio NaBaitik alde egitea beste biderik ez dietela utzi gainerako alderdiek; Aralarrek, bereziki. Gauzak kanpotik ikusita, ordea, dena azkarregia doa; hau da, Batzarreko zuzendaritza zabalak bestelako bideak aztertzea erabaki zuenetik egun gutxi-gutxira, IUekin bilera bat egin eta berehalakoan ados jarri dira, Parlamentuan, Iruñean eta ahalik eta herri gehienetan elkarrekin aurkezteko, betiere bi taldeetako kideen arteko harremanak gaiztatuak ez dauden tokietan (Antsoainen, konparazio batera). Gai batzuk adostu dituzte, gainera: identitate guztiak errespetatu beharra, euskararen ofizialtasuna eta erabakitzeko eskubidea. Hori guztia bilera bakar batean, omen, eta zeinekin eta IUekin. Dena den, zuzendaritzak berak Batzarreko kideei aitortu dien bezala, “harremanak” lehenagokoak dira. Nonbait, Nafarroan izen handi samarra duen pertsona batek bitartekaritza-lana egin zuen joan den urtarrilean, bi taldeen artean: ondotik, udaberrian beste bilera egin zuten, eta abuztuan, dokumentazioa eman zioten elkarri, koalizio berriak izan



JOSU SANTESTEBAN

beharko lituzkeen oinarrien inguruan. Baina, nola halako harremanak lehenagotik ere hasi ziren; 2007ko udatik aurrera, zehazki: bai IUekin, bai PSNko kritikoe-kin.

Horrez gain, kontuan hartu behar da, Batzarreko sektore batek (heren batek edo) ez duela inoiz begi onez ikusi Nafarroa Bain sartzea; tartean, zuzendaritzako


kide zenbaitek. Haien idazkietan, gainera, argi eta garbi erraten da Batzarrearen aukera ezker *ez-nazionalistaren* ondoan dagoela; batez ere, ETaren balizko desagerpenaren ondotik etorriko litza-tekeen egoera berrian. Fun-tsean jarrera hori bera dago ESK sindikatuaren barruko zatiketan. Batzarreko buru horiek, gainera, beste kontu bat darabilte kaskoan aspal-dixkotik: Nafarroa Baik argiago erakutsi beharko lio-keela aurkakotasuna ETaren jarduerari, afera horretan koalizioa epelegia izan dela-koan. Joan den udaberrian, gainera, Ioseba Ezeolaza

Batzarreko parlamentarioak Biktimen Legearen aldeko botoa eman zuen nafar Parlamentuan, NaBairen jarrera hautsita. ETak eragindako biktimen aldeko legea da hori, gainerako biktima guztiak (eta ez dira gutxi, gero!) bazterrean eta ahanztu-ran uzten dituen. Ezeolazaren jarrerak bazterrak astindu zituen NaBaiko boto-emaile aunitzen artean (Batzarreko kide askoren artean ere bai) eta zerbait hautsi izanaren sentsazioa zabaldu zen.

Batzarreko dio Aralarrek eta EAk aldatu egin dituztela NaBaiko oinarriak, bai eta barne-antolaketa ere, talde txikien kalte-tan, eta besteek diote Batzarre aldendu dela Nafarroa Baitik eta ez duela leial jokatu, eta aspaldian zerabilela IUekin batera aurkezteko asmoa. Batzarreko kideen erabakia bata ala beste izan, dena den, auskalo zer gertatuko den NaBaiko azken osaketari buruz hemendik hautes-kundeak bitartean. ■

Batzarreko dio Aralarrek eta EAk aldatu egin dituztela NaBaiko oinarriak, bai eta barne-antolaketa ere, talde txikien kaltetan, eta besteek diote Batzarre aldendu dela Nafarroa Baitik eta ez duela leial jokatu, eta aspaldian zerabilela IUekin batera aurkezteko asmoa

ASTE HONETAKO zozketa



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1




Txuri-Urdin izotz jauregia

2 harpidedunentzat
launa sarrera opari

Anoetako pasealekua, 24
Donostia GIPUZKOA

www.eltxuri.com

2



Pello Mari Otañoren arnasa 1857-1910

5 liburu opari

Hernandorena Kultur Taldea

www.zizurkil.com

3



Bilbo Samurai Fernando Morillo

3 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea

Navaz y Vides, 1
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

4



Kirolaz Badakit

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2249. Argia)

ARBELAITZ

• Josebe Sagarzazu Antsizar (Hondarribia)

ESAIT

• Jose Jabier Iraeta Arsuaga (Zaldibia)
• Xabier Mendaraz Lasa (Donostia)
• Alfredo Navarro Los Arcos (Iruñea)

MUNDUKO IPUIAK

• Tere Insausti Irastorza (Zaldibia)
• Estitxu Kortajarena Ugarte (Tolosa)

HOR HAGO KEVIN

• Txema Ibañez Aranaga (Erandio)
• Nekane Munduate Urdangarin (Ataun)
• Joseba Etxebarria Uriarte (Larrabetzu)
• Iñaki Zipitria Urkizu (Lezo)
• Gorka Moreno Marquez (Zornotza)

3 CD SORTA

• Martzelino Elortza Izeta (Segura)
• Juan Jabier Iturralde Maisterra (Iruñea)
• Anzizar Taberna (Beasain)

* Bisitaldiatarako epea: Bi hilabete

albisteak
kirolak

www.bizkaairratia.com



musikea
kulturea barriak
tertuliak

92.5

Ondarroa

96.7

Elantxobe
Aramaio

97.4

Bermeo
Bakio

97.5

Gernika Zornotza Markina
Durango Elorrio Eibar

98.1

Lekeitio

F.M. 102.6 Mhz